

#18 / 2021 EKAINA

arteka



GAINJARRITAKO
HITZA

GEDAR

Kapitalaren erreformatzaile guztiek defendatzen duten adierazpen askatasuna burgesiari ideologiaren eremuan bere nagusitasuna gauzatzea ahalbidetzen dion adierazpen askatasun bera da. Aniztasuna aitortzen duen adierazpen askatasuna da, bai eta aniztasun hori, gizarte kapitalistak ekoitzi duen bezala, adierazteko eskubidea ere. Politika iraultzailea artikulatzea ahalbidetzen duen kontraesana gainditu nahi duen adierazpen askatasuna da, konpromisorik gabeko iritzi-emaileentzako adierazpen askatasuna, eta, horren bidez, erabateko zentsura proletalgo iraultzailearentzat, zeinaren praktika, hain zuzen, adierazpen askatasunaren kontzeptu burgesaren zutabe den indibidualtasun burgesaren abolizioan datzan.

06

EDITORIALA

Arteka

Adierazpen askatasuna

EDUKIA

10



ERREPORTAJEA

Arteka

Isiltasunaren prezioa

22



KOLABORAZIOA

Xermin Etxeberri

Salbuespenetik deus ez
zuten salbuespen egoerak

36

KOLABORAZIOA

Jose Castillo

Pablo Hasel askatu:
ziklo politiko berri baten
lehen mobilizazioak

50

IKUSPUNTUA

Isabel Benítez

Osotasunaren heresia

Adierazpen askatasuna

EDITORIALA

Adierazpen askatasunari buruzko eztabaida, errepresio politikoaren azken kasuen berotasunean berpiztua, demokrazia burgesaren aukera immanente abstraktu gisa garatu ohi da. Zeintzuk dira bere mugak? Galdetzen diote beren buruari batzuek eta besteek, eskuinekoek edo ezkerrekoek, betiere ikuspegi moralista eta ideologikotik, non muga hiritar burges askearen askatasun abstraktua den.

Adierazpen askatasunaren mugak, ordea, ez dira ezartzen giza askatasunaren printzipio orokorren arabera, baizik eta zuzenean eratortzen dira klase boterearen mugetatik, ez direnak subjektiboak, objektiboak baizik, eta hertsiki ezarritakoak. Adierazpen askatasunaren mugak bat datoz botere burgesaren mugekin: gure lana ez da horiek birdefinitzea, hedagarriago bihurtzea, baizik eta sistemaren muga eraginkor gisa onartzea; proletalgoaren aukerak, sistema bera iraultzaz gainditzeko aukerak, determinatzen dituzten mugak.

Jakina da tertulianoak gizarte burgesak burgesiaren boterearen oinarri den ustezko hiritartasun anitzaren plantak egiteko sortzen dituen iritzi asketako figurak besterik ez direla. Ezin da bestela izan. Berdintasun-erlazio ekonomikoen ustezko arrazionaltasunaren gainean eraikitako botere baten menpe, guztiontzat berdinak diren lege objektiboekiko subordinazioaz harago inolako menderatze pertsonalera lotuta ez dagoen gizabanakoaren ustezko askatasunaren gainean eraikitako boterearen menpe, adierazpen askatasuna errealtate horrekin bat datorren ideologia ordezkatzeko duen bandera da. Kasu berdina, eta funtzio berdina, dagokio parlamentu burgesari, non bere kide guztiek adierazteko erabateko immunitatea duten, eta non iritzi-aniztasuna

Adierazpen askatasunaren mugak bat datoz botere burgesaren mugekin: gure lana ez da horiek birdefinitzea, hedagarriago bihurtzea, baizik eta sistemaren muga eraginkor gisa onartzea; proletalgoaren aukerak, sistema bera iraultzaz gainditzeko aukerak, determinatzen dituzten mugak

Pablo Haselen atxilotetaren kasua argigarria da, zentzu horretan: bere militantzia eta konpromiso politikoa ezkutatzea, bere ideiak kantuetan eta sare sozialetako mezuetan adieraz ditzakeen ala ez eztabaidatzeko. Azken finean, eztabaidatzen dena da ea burgesiak, bere diktaduraren gauzatzean, pobre eta baztertuekin errukia izan beharko lukeen ala ez

eta konfrontazio dialektikoa hiritartasun askearen eta demokraziaren elementu eratzaile gisa indartzen diren: iraultzarekiko konpromiso orotatik aske, eta sistema kapitalistak sortutako miseria hobia eta eramangarriagoa egiteko betebeharrak moralarekin.

Pablo Haselen atxilotetaren kasua argigarria da, zentzu horretan: bere militantzia eta konpromiso politikoa ezkutatzea, bere ideiak kantuetan eta sare sozialetako mezuetan adieraz ditzakeen ala ez eztabaidatzeko. Azken finean, eztabaidatzen dena da ea burgesiak, bere diktaduraren gauzatzean, pobre eta baztertuekin errukia izan beharko lukeen ala ez; baztertuak, printzipioz, iritzi-aparatu instituzionalizatuetatik eta bitarteko guztietatik, tarteka eta gure erantzukizunpean erabil ditzakegunetatik salbu. Eztabaida bera, etsaiak antolatua, autoritate eta doktrinatzeko ariketa bat da, non politika burgesaren ordezkari politikoa guztiek parte hartzen duten, inolako salbuespenik gabe, eta bere egiteko betetzen du gauzatze hutsagatik. Aipatutako egiteko bikoitza: dibertsitatearen plantak egitea burgesiaren boterearen neurria, bere menderatze formari baliagarria zaion dibertsitatea, eta botere hori bera bere ordezkari eta doktrinatzeko-adituen bidez gauzatzea; mota guztietako soldatapeko iritzi emaileak, izan hedabideetan, edo izan parlamentuan.

Beraz, adierazpen askatasunari lotutako eduki politikoa berreskuratu behar dugu, baina adierazpen askatasuna ulertuta ez gaindi daitekeen muga gisa, edo ez sistemaren kudeatzaileen akats soil gisa, zeina kudeatzaile horiek herri bozketa bidez aldatuta konpon daitekeen; baizik eta, politikaren esparruan, sistema iraultzaz gainditzeko baldintzak determinatzen dituen muga objektibo gisa. Zentzu horretan bakarrik uler dezakegu politika iraultzailea, hau da, klase interesak adiskidetzeko ezintasunaren zentzu antagonikoan. Adiskidetze hori gauzatzeko aukera minimo bat egongo balitz, horrek beti ekarriko luke berekin existitzen den boterearekiko mendekotasuna, ideologikoki adierazten dena bere kategorietan. Horixe bera gertatzen da adierazpen askatasunarekin, botere modu jakin batek mugatuta dagoena, subjektu juridiko burgesarentzat, hau da, hiritar edo gizabanako abstraktuarentzat, ahal dena eta ezinezkoa dena zehaztu nahi baitu.

Proletalgo iraultzailearentzat adierazpen askatasunik ez dagoela, agerikoa da. Kontua da ezin dela egon. Proletalgoaren adierazpen iraultzailea burgesiaren adierazpen askatasunaren aurka baino ezin da baliatu. Indar eta botere kontua da.

Horrek ez du esan nahi adierazpen askatasunaren inguruan borroka politikorik antolatu ezin denik. Are gehiago, ezin dugu, printzipioz, gure poli-

“

Proletalgo iraultzailearentzat adierazpen askatasunik ez dagoela, agerikoa da. Kontua da ezin dela egon. Proletalgoaren adierazpen iraultzailea burgesiaren adierazpen askatasunaren aurka baino ezin da baliatu. Indar eta botere kontua da

tika hedatzeko espazio edo borroka bakar bat ere alde batera utzi. Adierazitako posizioak borroka horren nolakotasuna eta bere eduki estrategikoa determinatzen ditu. Positiboa ez den eduki estrategikoa, adierazpen askatasun burgesa gauzatzearen eta hedatzearen zentzuan, baizik eta negatiboa, indibiduo juridiko askea gainditzearekin batera adierazpen askatasun burgesa errealki gainditzearen zentzuan.

Auzia da askatasun politikoen alde borrokatzea, komunismoaren aldeko proletalgoaren borroka artikulatzeko eremu mesedegarri bat eraikitzeke helburuarekin, eta soilik garai zehatz batean, non proletalgo burgesiaren botere egituren aurkako eraso ahalbidetuko duen Alderdi Komunistan antolaturik ez dagoen. Hau da, eskubide eta askatasun juridikoen aldeko borrokek ezin dute helburutzat izan printzipio horiek gizarte burges osora zabaltzea, baizik eta gizarte hori gainditzeko bitartekoak izan behar dira.

Planteamendu hori Kapitalaren ezkerak, bere alderdi sozial-erreformisten multzoarekin, egiten duenaren aurkakoa da, zeinak etorkizuna soilik ulertzen baitu, eta modu idealean bakarrik adieraz baitezake, botere burgesaren kategorien bidez. Jakina denez, Kapitalaren ezkeraren funtzioa, edo, hobeto esanda, ezker horrek bere buruari ematen dion funtzioa, argi eta garbi aitortuta, gizarte burgesaren printzipioak gauzatzea da, nahiz eta izen horrekin aitortu ez, edo ekoizpen modu kapitalistak historikoki zehaztutako printzipioak direla jakin ez, oinarri duten harreman sozialak modu idealean islatzen dituzten printzipioak.

Sozial-erreformismoak bere funtzio historikoa azaleratzeko erabiltzen duen baliabide politikoa ez da, horregatik, estatu kapitalistari, sistema juridikoari edo poliziari kritika egitea. Auzia ez da egitura bat ekoizpen kapitalistak objektiboki determinatuta egotea; jada ez dirudi gizabanakoak prozesu horren beraren beharrezko produktu direnik ere. Auzia gizabanakoaren kritika da, gizarte burgesak proiektatzen duen gizabanako idealetik etengabe urruntzen den, eta gizarte horren eraketa-aktan tipifikatuta dagoen, gizabanako gisa. Gehiegikeriak egiten dituen norbanako hori zuzendaritzako kide bat, enpresaburu bat, polizia bat edo gobernu jakin bat izan daiteke, beren existentzia justifikatzen duen funtzioarekiko kontrajarria den funtzio bat betetzen ariko balira bezala identifikatzen direnak, beren konstituzio printzipioen aurka egiten ariko balira bezala, zeinak, izatez, gizateriaren printzipio natural bihurtutako gizarte burgesaren printzipioak baino ez diren.

Adierazpen askatasunaren aurkako atentatua

gizabanako idealarekiko aldentze horren gainean eratzen den praktika bat da sozial-erreformismoarentzat, zeinak, aiene gehiagorako, urruntze hori bera baitu ondorio, gizabanako horren existentziaren printzipio idealak lausotzen dituen heinean. Kapitalaren erreformatzaile guztiek defendatzen duten adierazpen askatasuna burgesiari ideologiaren eremuan bere nagusitasuna gauzatzea ahalbidetzen dion adierazpen askatasun bera da. Aniztasuna aitortzen duen adierazpen askatasuna da, bai eta aniztasun hori, gizarte kapitalistak ekoitzi duen bezala, adierazteko eskubidea ere. Politika iraultzailea artikulatzea ahalbidetzen duen kontraesana gainditu nahi duen adierazpen askatasuna da, konpromisorik gabeko iritzi-emaileentzako adierazpen askatasuna, eta, horren bidez, erabateko zentsura proletalgo iraultzailearentzat, zeinaren praktika, hain zuzen, adierazpen askatasunaren kontzeptu burgesaren zutabe den indibidualtasun burgesaren abolizioan datzan. /

Isiltasunaren prezioa

PROLETA
GREBAR

«Ez ote dut esan behar nuena ahaztuko, ahaztu ezin dudan lehenengo gauza aurrezarritako moduan esatea baldin bada?»^[1]

KARL MARX

Testua
Arteka

Irudia
Zoe
Martikorena

Ideien adierazpena ez da abstraktuki egikaritzen, testuinguru konkretuetan eta determinazio historiko jakin batzuen pean baizik. Horregatik, ezin dugu ideien transmisioa berau sortu duten baldintzetatik bereizita ulertu. Giza historiaren determinazio nagusia klase borroka izaki, lege horrek araututako gizarteetan, klase sozial gailenak euren mundu-ikuskera inposatzen saiatzen dira, besteak mendean hartzeko. Beraz, adierazpen askatasunaren egikaritzearen adibide praktikoa gisara interpretatzen diren jarduera komunikatibo zein intelektual gehienak helburu historiko hori elikatzea dauka bideratuta. Erreportaje honek, hain zuzen, helburu historiko menderatzailerekin kontraesanean egon daitezkeen zenbait adierazpenek XXI. mendeko mendebaldar demokrazietan izandako ondorio penalei erreparatuko die.

Adierazpen askatasuna printzipio ukiezina dela sinestarazi nahi du burgesiak. Hala ageri da 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko hotsandiko 19. artikuluan, erdigune inperialistako herrialdeetan txertatuta dagoen zentzu komunean, prentsan eta legedi formalean. Horren inguruan sortzen diren eztabaida estereotipatuak premisa zein dilema faltsuetatik abiatzen dira etengabe. «Non daude adierazpen askatasunaren mugak?», «Ez ote dugu eskubide horretaz abusatzen?», «Adierazpen askatasunak min egiteko aukera babestu behar lu-

Ideiak adierazteko askatasun erreala diruz erosten den sistema batean bizi gara, non Kapitalaren jabeen ideiak diren hedapen sozialerako baldintza material gehien dituztenak

ke?»), diosku, erretorikoki, burgesiaren sabeliztunak. Aurrerakoi tentelek atzetik jarraitzen diote, saguek Hamelingo txistulariari bezala. Eztabaiden ohiko norabideaz nazkatuta, ondokoa erantzun zuen Juan Manuel Olarieta abokatu eta militante politikoa bilbotarrak: «Zerk kezkatzen gaitu benetan? Adierazpen askatasunaren mugek ala adierazpen askatasunak berak?»⁽²⁾.

Ideiak adierazteko askatasun erreala diruz erosten den sistema batean bizi gara, non Kapitalaren jabeen ideiak diren hedapen sozialerako baldintza material gehien dituztenak. Thomas Jefferson AEBetako hirugarren presidentea argiki mintzo zen horren harira: «[...] Estatu Batuetan edonork editatu dezake egunkari bat, gaur egun ere bai, baina gutxienez zazpi milioi dolar kostatzen zaio; hori argitalpenari ekitea besterik ez da, ondorengo gastuak kontuan hartu gabe. “Nork gozatzen du prentsa-askatasunaz?” – Galdetu zuen jendaurrean *Daily News Washington*-eko editore Louis Mollek; eta bere buruari erantzun zion– “Egunkariaren jabeek eta enparauek”. [...] Prentsa-askatasuna jabetzarena da»⁽³⁾. Burgesiaren neurritik egindako legeak aurkitzen ditugu formazio sozial burgesean, kapital metaketa errazteko eta dominazio sistema horren aurkako mehatxuak zigortzeko baliagarriak direnak, ustez kaltegabeak diren jardura intelektualak salbuetsi gabe.

Langile mugimenduaren propagandaren aurkako hertsapenaren adibide historikoetan sartu gabe, azken urteotan argitara atera diren kasu esanguratsuak eta horiek zigortzeko baliatu diren marko juridikoak aztertuko ditugu. Judizializatutako iritzi zein informazio delituak bereziki deigarriak dira, batez ere, proletalgo iraultzailearen desartikulazio ideologiko, politikoa zein organizatiboa ia erabatekoa dela ikusita. Zentzu horretan, jurisprudentzia berriak etorkizuneko gizarte-ereduaren nondik norakoak trazatzen lagunduko digu, zuzenbide estatuaren desintegrazioantza eta masa desjabetuen erabateko dominazioantza doana.

Jurisprudentzia berriak etorkizuneko gizarte-ereduaren nondik norakoak trazatzen lagunduko digu, zuzenbide estatuaren desintegrazioantza eta masa desjabetuen erabateko dominazioantza doana

MOZAL LEGEA

Ezer baino lehen, *Mozal Legea* deiturikoaren inguruko kokapen politiko orokorra egitea komeni da, informazio delitu ugari zigortzeko baliatu izan baita Espainiako Estatuan. *Ley Orgánica 4/2015, de 30 de marzo, de protección de la seguridad ciudadana*⁽⁴⁾ da gazte-erazko izendapen ofiziala, eta 2015eko uztailaren lehen indarrean jarritako lege organiko berriari egiten dio erreferentzia, 1992ko *Corcuera Legea* ordezkaturik. Hasiera-hasieratik Espainiako Estatu mailako zein nazioarteko polemika piztu zuen, langileriaren bizitza zibileko oinarritzko askatasunei muga larriak ezartzen dizkielako; adierazpen eta informazio askatasunari, esate baterako. Espainiako Kongresuak 2012an onartu zuen legea, krisialdia eta horren ondoriozko proletarizazio prozesua puri-puritan zirela, M15eko protesta olatuaren erdian. Gainera, sare sozialen eztegiaren, ikus-entzunezko baliabideen digitalizazioaren eta horien masa ekoizpenaren eskutik, aipatu protestetan geroz eta ohikoagoa izango zen edonork esku-hartze polizialak filmatu eta zabaldu ahal izatea.

Gauzak horrela, Estatuak gatazka sozialaren areagotzeak ezaugarritutako koiuntura berrira moldatu du legedia, Zigor Kodearen berrikuspena gauzatuta. *Mozal Legea* indarrean jarri zutenetik 2020. urte amaierara arte, 1.009.729 isun jarri dira gutxienez, 563,3 milioi euroko balioarekin⁽⁵⁾. Horri guztiari, gainera, Hego Euskal Herriko eta Kataluniako zifrak ere gehitu behar litzaizkioke, azken horiek ez baitira Espainiako Barne Ministerioaren estatistiketan jasotzen. Arau-hausteen



**Estatuak gatazka sozialaren
areagotzeak ezaugarritutako koiuntura
berrira moldatu du legedia, Zigor
Kodearen berrikuspena gauzatuta**



gehiengoa drogen auziei lotuta badago ere, “hiritar segurtasuna” deritzon kategoriak betetzen du bigarren postua *Mozal Legearen* ezarpenean, 197.288 isunekin. Lege-erreformak kategoria horren baitan xedatzen ditu adierazpen zein informazio askatasunaren mugapen berriak, ondorengo kasuistika aurreikusiz: etxegabetzeak geldiarazten saiatzea, eraikin edota monumentuetara baimenik gabe igotzea, esku-hartze polizialak filmatzea eta aurretiaz baimenik eskatu gabe manifestazioak egitea. Eraikinetara igotzea falta arin gisara tipifikatuta dago, 100 eta 601 euro arteko isun ekonomikoarekin. Gainontzekoek isun larriagoa ekar dezakete, 601 eta 30.000 euro artekoa, hain zuzen ere ⁽⁶⁾.

Bistan denez, araudi horrek are gehiago estutzen du politika instituzioez kanpo gauzatzen duten antolakundeen zein norbanakoen jarduerarako marjina, hainbat praktika kriminalizatzen, zigortzen eta judizializatzen baititu. Poliziaren irudiak hartzeko eskubidea mugatzearen kasuan, badu bestelako ondorioz ere: Estatuaren indar armatuen inpunitatea alor mediatikoan indartzea, «agenteen segurtasun pertsonala edo familiarra, babestutako instalazioen segurtasuna edo eragiketa baten arrakasta arriskuan jartzea» ⁽⁷⁾ aitzakiatzat hartuta. Artikuluaren anbiguotasunak gertakarien interpretaziorako abagune zabala uzten die poliziei, eta haiek, marko legal horri esker, oso erraz argudia dezakete irudiak «sare sozialetan difamaziozko hedapenerako» hartu direla, euren «ohorerako eskubidea urratuta».

GORROTO DELITUA

Aurrekoak ez ezik, «terrorismoari gorazarre egitea» eta «gorroto delitua» ere zigortzen dituzte Zigor Kodearen azken erreformek. Alejandra Matamorosek, Pablo Hasel rap abeslari errepresaliatuaren abokatuak, “gorroto delitu” delakoaren jatorria azaldu zuen elkarriketa batean: «Europar Batasunean, Alemanian batez ere, zigortzen hasi zen delitua da; bazterkeria eta





kolektibo zaurgarrien aurkako gorrotoa sustatzen duten talde neonaziak geldiarazteko asmoarekin sortua»⁽⁸⁾. Halaber, «bereziki zaurgarriak diren kolektiboen aurkako gorroto eta bazterkeriazko mezuak zabaltzen dituztenen aurka» erabiltzeko pentsatu zela dio Matamorosek. Espainiako Estatuaren kasuan, ordea, «kontrakoa» gertatu dela ohartarazi du Haselen defentsak: «Guztiei leporatzen zaie gorroto delitua, naziei eta faxistei izan ezik». Gainera, gorroto delituaren kontrako legeak Estatuaren segurtasun-indarrak edota pertsona aberatsak babestea «erabat zentzugabea» dela dio, «ez baitira kolektibo zaurgarriak, inondik inora».

Epaietan joera jakin bat nabarmentzen da orokorrean; izatez, legea zorrotza da ideologia iraultzaile edota aurrerakoiak dituzten pertsonekin, eta barkabera eskuin muturrekoekin. Esate baterako, Bartzelonako (Herrialde Katalanak) Zigor Auzitegiak duela gutxi absolbitu ditu Alianza Nacional eta Falange alderdi faxistetako buruzagi bana⁽⁹⁾. 2013ko urriaren 12ko mitin batean «Espainiaren batasun nazionalaren aldeko ekintza bortitzak sustatzea» egozten zieten. Akusatuak uko egin zioten epailearen aurrean deklaratzeari, eta horren ordez, «Espainiaren alde hiltzeko prest daudela» berretsi zuten, Kataluniako prozesu subiranistari erreferentzia eginda: «bidegabekeria hau ontzat eman duen klase politiko espainiarrak eta buruzagitza militarrek bala bat merezi dute». Termino kons-


Agerian geratzen da «gorroto delitua» eta «terrorismoari gorazarre egitea» bezalako kategoria penalak ez direla neutroak, sektore jakin batzuen gaineko jazarpen ideologikorako tresna juridiko-politikoak baizik

tituzionaletan, bortizkeria erabiltzeko eta ordena konstituzionala aztoratzeko borondate esplizitua azaldu bazuten ere, faxistek ez zuten inolako zigorrik jaso. Ondorioz, agerian geratzen da «gorroto delitua» eta «terrorismoari gorazarre egitea» bezalako kategoria penalak ez direla neutroak, sektore jakin batzuen gaineko jazarpen ideologikorako tresna juridiko-politikoak baizik. Aurrekoa bezalako kasuak ugariak diren arren, gehiago dira justizia burgesaren partzialtasuna aitortu nahi ez duten sektore sozialak. Legezalekeria dogmatikoari eusten diote, adierazpen askatasunaren urraketak justifikatzeko. Olarietak erantzun egokia du haientzat: «Frankismoan kartzelara joaten zena ez zen bere iritzi politikoengatik joaten, Zigor Kodea urratzeagatik baizik. Halaxe gertatu zen frankismoan eta gauza bera gertatzen da orain: adierazpen askatasuna zenbaitentzat da; mugak gainontzeko guztientzat dira»⁽¹⁰⁾. Funtsean, zapalduak zapaltzaileekiko gorrotoa sentitzea eta adieraztea *de iure* debekatuta dago, zapaltzaileek zapalduakiko gorrotoa adieraztea *de facto* baimentzen den bitartean.

ARMIAIRMA OPERAZIOA

Guardia Zibilak 2014 eta 2016 artean polizia-operazio bat abiatu zuen sare sozialetan, Twitter eta Facebooken «terrorismoari gorazarre» egiten omen zioten pertsonak zigortzeko asmoz. Besteak beste, «ETA», «GRAPO», «Argala» eta «Carrero Blanco» hitzak zeramatzaten argitalpenen bila aritu ziren, «trufa» edo «gorazarre» egiten zutenen aurkako salaketak aurkezteko. Dozenaka lagun atxilotu zituzten Espainiako Estatu osoan barrena, horietako asko Hego Euskal Herrian. Alfredo Remirez amurriarraren kasua izan zen ezagunena, euskal preso politikoei elkartasuna adierazteagatik urtebete-ko espetxealdia jasan baitzuen⁽¹¹⁾. Bere abokatuak urte eta erdiko kartzela-zigorra eta hamalau urte eta sei hilabete-ko gaitasungabetzea onartu zituen hasiera batean, espetxealdia saihestearen truke. Hala ere, «berrerortzea» argudiatuta kartzalaratu zuten Remirez, Espainiako Auzitegi Gorenak aurretiaz zigortu baitzuen, presoan aldeko kartoizko panpina bat eramateagatik.





VALTONYC

2012an Jose Miguel Arenas rap abeslari antifaxista (*Valtonyc* izen artistikoaz ezagunagoa) atxilotu zuten bere abestien edukiengatik. «Terrorismoari eta terroristei gorazarre egitea», «terrorismoaren biktimak iraintzea», «erregearen aurkako kalumniak eta irainak» nahiz «norbanakoaren aurkako baldintzarik gabeko mehatxuak» egotzi zizkioten. 2017an Espainiako Auzitegi Nazionalak hiru urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri zion, haren aurkako kargu guztiak onartu ostean⁽¹²⁾. Valtoneycek helegitea aurkeztu zuen Auzitegi Gorenan, baina aurreko epaia berretsi zuen Gorenak. 2018ko maiatz amaieran, abeslaria espetxeratzeko ezarritako data baino egun bat lehenago, atzerri-ira ihes egin zuela aditzera eman zuten hainbat komunikabidek. Espainiako Auzitegi Nazionalak nazioarteko atxilotze-agindua igorri zuen berehala, eta handik gutxira baieztatu zen Belgikan zegoela. Estrasburgoko (Frantziako Estatu) Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere uko egin zion espetxeratzeko agindua atzeratzeko eskaerari. Gauzak horrela, Belgikako epaitegien esku geratu zen auzia. Fidantzarik gabe aske uztea ebatzi zuten epaile belgikarrek, *El País* egunkariaren zoritxarrrako⁽¹³⁾. Hori bai, Belgikako epaitegiek bere kasua ebazten duten bitartean, herrialdetik irteteko debekua eta etxealdaketak jakinarazteko betebeharra ditu gainean.

PABLO HASEL

Espainiako Estatuan azkenaldian adierazpen askatasunaren aurkako zigor gogorra inork jaso badu, Pablo Hasel izan da hori. Abeslari katalanak bere aurkako hainbat sententzia ditu metatuta, abestietako letren, Twitterreko argitalpenen eta militantzia komunistaren ondorioz. Espetxeratzek ez-tanda mediatikoa, mobilizazio soziala eta haserre piztu zituen. Polemikaren erdian, leporatzen dizkioten delituak komunikabide burgesek hamaika aldiz

«Koroaren aurkako irainek» protagonismo handia hartu duten arren, Haselek bi kondena ditu «terrorismoari gorazarre egiteagatik», hots, Estatuari aurre egin dioten antolakunde zehatzen jarduerari babesa adierazteagatik



zerrendatu dituzte honezkero, modu manikeoan baldin bada ere. «Koroaren aurkako irainek» protagonismo handia hartu duten arren, Haselek bi kondena ditu «terrorismoari gorazarre egiteagatik», hots, Estatuari aurre egin dioten antolakunde zehatzen jarduerari babesa adierazteagatik. Bestalde, «Estatuaren segurtasun-indarren aurkako irainak» ere egozten dizkiote, Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak proletargoaren aurka egindako bidegabekeriak salatzeagatik.

Hasieran, bazirudien bederatzi hilabeteko espetxe-zigorra ezarri ziotela Haseli, 20.000 eurotik gorako isunarekin batera. Kopuru hori ordaintzeko asmorik ez duenez, espetxealdia bi urtetik gora luzatu diezaioke. Duela gutxi, gainera, Lleidak (Herrialde Katalanak) Probintzia Auzitegiak beste sei hilabeteko espetxe-zigorra eta hemezortzi hilabeteko isuna berretsi zituen beretzat. Finean, azken sententziak eta zigor-aurrekariak batuta, lau urtetik gorako espetxealdiaren mehatxua du aurrean. Bestalde, sententzia gehiagoren zain dago, bere momentuan helegiteak aurkeztu baitzituen ebazpen judizialen kontra. Epaitegiek fiskaltzak eskatutako kargu guztiengatik kondenatuko balute, abeslari komunistak hogeitau urte pasatu ditzake kartzelan.

Dena den, interesgarriena ez da auto judizialek diotena, kartzelaratzearen atzean dagoen funtsezko arrazoia baizik. *Gedar Langile Kazeta*-k urtarri-laren 31ko editorialean⁽¹⁴⁾ aipatu bezala, Haselek borroka antolatutako eta konprometiturako deia egiten du bere abestietan, esandakoa betetzeko prest dago, eta ez du barkamenik eskatzen. Horren ondorioz, epaiketetako batean «pertsonek arriskutsua» dela aitortu zuen fiskaltzak, «bere abestiak jende askok entzuten dituelako», eta horietatik «mobilizazio soziala» sustatzen duelako. Bistan denez, botereak ez dio beldur handirik kexu edo iritzi arduragabeari; bai, ordea, modu iraunkorrean antolatutako militantzia iraultzaileari.

Botereak ez dio beldur handirik kexu edo iritzi arduragabeari; bai, ordea, modu iraunkorrean antolatutako militantzia iraultzaileari

EZKERRAREN JARRERA

Ezkerra *Mozal Legearen* aurkako banderadun parlamentarioa izan da joan diren urteetan. PSOEek eta Unidas Podemosek Alderdi Popularraren aurkako arma jaurtigarri gisa eta hauteskunde propagandarako baliatu dute *Mozal Legea*. Oposizioan zeuden bitartean, behin baino gehiagotan promestu zuten horrenbeste askatasun zibil eta politiko murrizten zituen legea balio gabetzea. 2016an gobernura heldu eta berehala, PSOEek uko egin zion hauteskunde kanpainan zin egindakoari. Horren ordez, *Mozal Legea* «zenbait erreforma egiteko asmoa»⁽¹⁵⁾ baino ez zuen azaldu. 2021ean gaude, eta oraindik ez dute legearen artikulua bat bera ere aldatu.

Haselen kasuaren harira, eztabaida publikoan nahiz kaleetan piztu zen iskanbilaren ondorioz, PSOEek eta Unidas Podemosek amua jaurti zuten, «Zigor Kodearen erreforma sakona»⁽¹⁶⁾ gauzatuko zutela esanez. Haselen izena hedabideetako titularretatik desager-




tzen eta kaleetako sua itzaltzen joan den heinean, ordea, ez dugu ustezko erreforma horren inguruko berririk izan oraindik. Gainera, zin egin zuten Hasel espetxetik ateratzeko «indultua» bideratuko zutela. Hala ere, bere abokatuak hainbat kontu gogorarazi zituen prozedura horren inguruan: lehenik eta behin, premiaz eskatutako indultuen kudeaketak «bederatzi hilabete eta urte eta erdi artean»⁽¹⁷⁾ luzatu ohi direla; eta bigarrenik, «legeak ez duela baimentzen delitu berarengatik behin baino gehiagotan kondenatuak izan direnei indultuak ematea». Horretarako, Haseli zigorra ezarri dion epaitegiak, Espainiako Auzitegi Nazionalak, indultua onartzen duen txosten bat igorri behar luke, eta gobernuak horren ostean baino ez luke izango indultua emateko eskumena. PSOE eta Unidas Podemos, tentsio soziala baretzeko helburuarekin eta jakitun izanda, gezurretan aritu direla ondoriozta dezakegu. Gezurra are nabarmenagoa da *Valtonycen* indultua eskatuko zutela esan zutela ikusita, justiziak iheslariantzako indultu-eskaerak ez baititu tramitatu ere egiten.

ONDORIOAK

Hauteskunde-programek eta alderdien bozeramaile hitzontziek euren hitza eman dezakete, baina esandako hitz bakoitza irenstera behartuta egongo dira estatu-aparatua kudeatzera heldu bezain laster. Ezkerraren politika parlamentarioa ez da proletalgoaren adierazpen askatasunaren berme, eta alarma egoeran ikusi ahal izan dugun bezala, ezta askatasun politiko orokorrera ere. Defendatutako eta konkistatutako askatasun-izpi bakoitzak proletalgoaren indar propioei erantzungo die; autoantolakuntza independentearen emaitza izango da. Bestela, ziur egon gaitzezke: zapalduen eskubide politikoak defendatuko dituen antolakuntza indartsurik gabe, salduta gaude. /

«Non amaitzen da seriotasuna, non hasten da txantxa? Non amaitzen da apaltasuna, non hasten da harrokeria? Zentsorearen tenperamentuaren menpe gaude»⁽¹⁸⁾.

KARL MARX





OHARRAK

1 Karl Marx, (1983). *En defensa de la libertad, Los artículos de la Gaceta Renana*, Fernando Torres-Editor, S.A, Valencia, 28. orr.

2 Juan Manuel Olarieta, (2021). *La libertad de expresión es para algunos, los límites son para todos los demás*, Insurgente.org.

3 Camilo Taufic-ek aipatua, (2018). *Periodismo y lucha de clases*, edizio digitala, 74. orr.

4 BOE-A-2015-3442

5 Santiago F. Reviejo, (2020). *Un millón de multas desde la implantación de la Ley Mordaza*

que superan los 563 millones de euros, Público.

6 Víctor H. Ospina - Raquel Enríquez, (2015). *¿Qué es y en qué consiste la 'ley mordaza' también conocida como Ley de Seguridad Ciudadana?*, Expansión.

7 BOE-A-2015-3442, 36.23. artikulua.

8 Alejandra Matamoros. Semando Escontra la Represión (2021). *Entrevista Alejandra Matamoros, abogada de Pablo Hásel y David Martín, Llibertat Pablo Hásel*. Youtube.

9 Europa Press, (2021). *Absueltos los líderes de Falange y Alianza Nacional juzgados por delito de odio en sus discursos*.

10 Juan Manuel Olarieta, (2021). *La libertad de expresión es para algunos, los límites son para todos los demás*, Insurgente.org.

11 Europa Press, (2018). *Queda en libertad Alfredo Remírez, condenado por enaltecer a ETA en Twitter*. Público.

12 Tribunal Supremo. Sala de lo Penal. Sentencia núm. 79/2018.

13 Álvaro Sánchez, (2018). *La justicia belga deja en libertad a Valtònyc mientras decide sobre su extradición a España*. El País.

14 Editoriala, (2021). *Pablo Hasel eta adierazpen askatasuna*. Gedar.eus.

15 Raquel Ejerique, (2016). *Pedro Sánchez renuncia a su promesa electoral de derogar la 'Ley Mordaza' en el documento para ser investido*. ElDiario.es.

16 Carlos, É. Cué, (2021). *El Gobierno cambiará la ley para que casos como el del rapero Hásel no tengan penas de cárcel*. El País.

17 Alejandra Matamoros. Semando Escontra la Represión (2021). *Entrevista Alejandra Matamoros, abogada de Pablo Hásel y David Martín, Llibertat Pablo Hásel*. Youtube.

18 Karl Marx, (1983). *En defensa de la libertad, Los artículos de la Gaceta Renana*, Fernando Torres-Editor, S.A, Valencia, 29. orr.

Testua — **Xermin Etxeberri**
Irudia — **Mikel Barberia eta Inhar Iraizotz**

SALBUESPENETIK DEUSEZ ZUTEN SALBUESPEN EGOERAK

*«Dei diezaiekegu demokrazia nahi badugu, baina, mendebaldeko herrialdeen
erregimena, oligarkia liberalarena da»*

CORNELIUS CASTORIADIS

Testu hau idazterakoan legea Senatuaren baitan eztabaidatzen ari zen. Harrezkero, legearen izena eta artikuluen zenbakiak aldatuak izan dira. Testuak kondutan hartzen ditu zenbaki aldaketak, baina ez izenarena. Bestalde, testua idatzi eta gerora Kontseilu Konstituzionalak zentsuratuko zituen 7 artikulua, hala edo nola kondutan hartuak izan dira.



Komunista batek ez ditu behar baino gehiago idealizatzen zuzenbide estatua ala demokrazia burgesa, ongi dakielako estatuaren funtzio nagusia, azken instantzian, berau edozer formakoa izanik ere, klase baten diktadura bestearengan ahalbidetzea dela, eta ez, aldiz, interes orokor abstraktuaren bermatzea. Alabaina, ez du erran nahi epe motzean oinarritzko askatasunak defendatu behar ez direnik edota demokrazia formala defendatu behar ez denik. Langile klaseak oinarritzko eskubide politikoen beharra du, motzean erranik, horiek erraztuko baitiote egunerokoa eta kapitalismoa gainditzeko beharrezkoa zaion antolakuntza komunista. Argi izanik ere, intentsitate askoz altuagoko demokrazia erreala dagokiola proletariotzari, lehenik proletariotzaren diktadurarekin onduko dena, eta, ondotik, klaserik gabeko gizartean, demokraziaren beharra bera inutila bilakatuko duena.

Zuzenbidean eman diren azken urteetako eraldaketak Frantzia faxistazio prozesuaren adierazle dira. Arbitrarismoa suspertzen duen autoritarismo lerratze hori ezin da ulertu Macronen megalomania krisi soil gisa ala poliziaren arazo organiko gisa, baizik eta gainegitura-egituraren arteko harreman dialektiko gisa. Zuzenbide estatua urrezko garai ekonomikoetako luxua da. COVID-19aren gaitzak bizkortu egin du zetorkigun enegarren ekoizpen krisi kapitalistaren agerpena, ziklo ekonomiko berriako trantsizioa hil ala biziko kontua bilakaraziz. Ziklo honek esplotazio tasa handiagoa dakar, kale-eratzak, proletarizazioa eta bizi eredu alienagarriagoa langile klasearentzat.

Beraz, indar korrelazioa alde duen honetan, burgesiak biharko ziklo ekonomikoan berebizikoa izango zaion aparatu juridiko-politiko autoritario eta errepresiboa egokitzen du, eta aztertuko ditugun legeak ezin daitezke beste molde batez ulertu. Etorkizun hurbileko miseria sozial bortitzak asal-dura piztu eta oldarraldiak ekar ditzake, eta, ondorioz, langile antolakuntza, burgesiaren botereari kontrajarririko indar antagonikoa, kosta ahala kosta saihestu beharreko posibilitatea da. Hori dela eta, bultzada berri bat ematen diote delako makartismoari, zeinetan komunisten sorgin ehiza eskala handiagoan burutzen den. Hau da, burgesiak, jakina denez, antagonikoa zaion *subjektua* nahitaez ekoitzi behar du akumulatzen segitzeko, eta, horrenbestez, kolokan den bake soziala mantentzeko asmoz, hainbat interbentzio egin behar ditu, batez ere, bi fren-tetan: batetik, modernizazio kultural alienagarria areagotzen eta, bigarrenik, lan ideologikoa nahikoa ez bada, koertzio estatala baliatzen^[1] (armada, polizia, aparatu juridikoa edota burokrazia). Bigarren

honetan zentratuko gara, Europako Batasuneko estatuak, geroz eta gehiago, «burgesia nazionalaren (eta beraz gutxiengoaren) gainegitura errepresiboaren» forma hartzen ari baitira^[2].

Azken sekuentzia legislatiboaren bitartez —eskuin muturraren onespenearekin iragan dena— mezu argia pasarazi dute kapitalaren alderdiek: askatasunik ez, ordena sozialaren kontra altxatzen denarentzat. Horretarako gainera, salbuespen egoerak nehork baino hobeki erabiltzen dakizki burgesiak, pandemia, kasu. Anitz genuke errateko salbuespen egoera juridikoez: betetzen duten funtzioa, *ordena publikoaren* adiera burgesa, botere betearazlearen indartze etengabea, zuzenbide estatuaren tolesteko ahalmena... gehiegi ere, ziur aski, kolaborazio honetan auziaren nondik norakoan biltzeko. Bizpahiru ohar emanen ditugu, hala ere, salbuespen egoerei buruz, bidenabar zuzenbide estatua eta ordena sozialaren nozioak argitzera eramanez gaituztenak.

ZUZENBIDE ESTATUAREN MITOA

Ezin da zuzenbide estatua aipatu Hans Kelsen jurista positibista hizpidera ekarri gabe. Haren definizioa laburbilduz, zuzenbide estatua estatu normatiboa da zeinetan norma juridikoak, estatuaren boterea mugatze aldera, hierarkizatuak diren. Horretarako estatu mota horren zutabeak ondorengoak izan beharko lirateke: normen hierarkizazioa (Konstituzioa gainean, eta giza eskubideak), botereen arteko banaketa, berdintasuna legearen aitzinean edota estatuaren menpekotasuna legearekiko.

Azken hamarkadetan, zuzenbide estatua demokrazia liberalen neurgailutzat hartu da, baina, historiaren epaitegiak errealtatean oinarrituak ez diren abstrakzio teorikoekin egin ohi duen bezala, zuzenbide estatuaren mitoa kontingentetzat jo du, agerian utziz berau posible egiten duten oinarriak ezaba daitezkeela egoerak agintzen duenean. Izan ere, ustez bermatuak eta inalienableak genituen funtsezko eskubideak zalantzan jarri dizkigute, horiek bermatzen zituzten baldintza objektiboak okertu direnean, eta salbuespen egoera juridikoak plantan jarri behar izan direnean, behin eta berriz iusnaturalismoaren abstrakzioa baliogabetuz^[3].

Salbuespen egoerek zuzenbide estatuaren eta demokrazia liberalaren behin-behinekotasuna azaleratzen dute, emana zaiguna esku batez, beste eskuarekin hartua izan dakigukeena agerian utziz. Hau da, nola mintzatu funtsezko eskubideez edota legediarengatik mugatua den botere publiko batez legedian berean horiek baliogabetu ditzaketen mekanismoak baldin badira? Zuzenbidea analizatzerakoan, paradigmatikoa aldatzea dagokigu beraz, usu

Burgesiak, jakina denez, antagonikoa zaion *subjektua* nahitaez ekoitzi behar du akumulatzen segitzeko, eta, horrenbestez, kolokan den bake soziala mantentzeko asmoz, hainbat interbentzio egin behar ditu, batez ere, bi frentetan: batetik, modernizazio kultural alienagarria areagotzen eta, bigarrenik, lan ideologikoa nahikoa ez bada, koertzio estatala baliatzen (armada, polizia, aparatu juridikoa edota burokrazia)



Azken hamarkadetan, zuzenbide estatua demokrazia liberalen neurgailutzat hartu da, baina, historiaren epaitegiak errealitatean oinarrituak ez diren abstrakzio teorikoekin egin ohi duen bezala, zuzenbide estatuaren mitoa kontingentetzat jo du, agerian utziz berau posible egiten duten oinarriak ezaba daitezkeela egoerak agintzen duenean



bezala, ideologiak sortzen dituen ilusio alderantzikatuetan erori nahi ez badugu. Egitura eta gaine-gituraren irakurketa mekanikorik ez egiteari kasu eginez, zuzenbidea –harreman juridiko eta estatuen forma ezberdinen zientzia gisa ulertuta– eduki mailan batez ere zertaz osatua den argitu behar genuke.

Ikuspuntu materialistatik, historikoki agertzen diren harreman juridikoak harreman produktiboak baldintzatuak dira, eta, beraz, finean zuzenbidearen edukia ekonomikoki determinatua eta aldagarria da, jurista positibista zein filosofo idealisten ustetan ez bezala. Dialektikoki pentsatu behar da harreman hori, gainbalioaren erauzketara egokitzten bada zuzenbidea, berak eragin baitezake hein batean erauzketaren eboluzioarengan, klase borrokaren intentsitatearen arabera (fase historiko konkretuekin hertsiki lotua). Formaren aldetik, berriz, zuzenbidea errealitate sozialen forma fenomenal fetitxizatua besterik ez liteke, Marxen arabera^[4].

SALBUESPEN EGOERAK

Hiru dira unean uneko arazoei aurre egiteko aurreikusitako salbuespen egoera juridikoak Frantziako estatuan. *Larrialdi egoera* horietako bat da, eta hori analizatuko dugu hemen zehazki. Beste biak, *setio egoera* eta botere guziak lehendakariaren esku artean kontzentratzen dituen konstituzioko 16. artikulua dira. Bakoitzaren baldintzetan ez gara sartuko baina, oro har, amankomunean dute ohizko zuzenbidea bazter batean uztearena, ordena soziala mehatxatzen duen arrisku bati aurre egiteko (erromatar zuzenbidean diktadura deitzen zitzaion horri).

Larrialdi egoerari azpimarra jarritz gero, 1955. urteko lege batekin topo eginen genuke, Aljeriako gerrari buru egiteko sortu zutena^[5]. Aztertzen hasi baino lehen, ohar gaitzek bidenabar ohizko zuzenbidearen printzipioak kolokan jar ditzakela lege ordinarario batek, kotsakrazio konstituzionalik ere ez duena, eta IV. Errepublika zaharrean indarrean sartu zena. Laburbiltzeko, larrialdi egoeran, V. Errepublikan lehendakariari erabat sumetitia zaion botere betearazlearen esku kontzentratzen dira usaian ez dituen hainbeste prerrogatiba, ordena publikoa kolokan jartzen duen unean uneko arazoari aurre egin diezaion. Lanjer honen aitzinean, funtsezko askatasunak murriztu daitezke (mugitzeko eta biltzeko askatasuna, manifestatzeko debekua...) eta demokraziaren kontrol mekanismoen gainetik pasa daiteke exekutibo ahalguztiduna. Demokraziaren zutabeei kalte zuzena egiten dizkion muturrezko mekanismoa denez, berme juridiko batzuei sumetitia da, Asanblea Nazionalaren kontrol minimoenera adibi-

dez, larrialdiaren epea luzatu nahi denean.

Alabaina arrisku terroristari aurre egiteko plantan jarri zen 2015ko larrialdi egoeraren aplikazioa adibidetzat hartzen badugu, berme juridiko horien baliogabetasuna praktikan ikusiko genituzke. Hau da, aurreikusi bezala larrialdi egoerak 6 hilabete iraun beharrean, 24 hilabete iraun zituelako. Izan ere, 2015 urtetik hona (larrialdi sanitarioa kontutan harturik) kasik kopuru berdinekoak dira salbuespen egoeraren menpe eta egoera *normalean* iragan ditugun urteak. Egoera normalaz mintzatzea ez da hain egokia, aipatu larrialdi egoera hori analizatzen badugu, ikusten baitugu adibidez nola betikotuko ziren larrialdi egoeraren baitan hartu ziren salbuespenezko aldaketa juridikoak, larrialdi egoera bukatu eta berehala indarrean sartu zen 2017ko lege antiterroristarekin. Lege honek, botere betearazle eta administratiboaren esku uzten ditu prerrogatiba batzuk terrorismoaren kasuan, normalki botere judizialari legozkionak, etxebizitzaren miaketa administratiboak edota etxeratze agindu administratiboak bezalakoak.

ORDENA PUBLIKOAZ

Goragoko definizioan garrantzitsuena den ezauzgarria, zehaztu gabe utzi duguna, ordena publikoarena da. Ez da erraterik bizi dugun garaia ez duela ezagutzen holako arriskurik, izan ere, erraterako, terrorismo jihadistaren mehatxua existitu existitzen da. Kritikatzten dena hemen, klase dominanteak egoera horiek instrumentalizatzeko duen joera da. Ordena publikoa, gainera, nozio korapilatsua da, ezaugarri moldagarri eta espekulatiboez osatua baita: segurtasuna, moralak, garbitasuna, lasaitasuna, bake publikoa... Ordena publikoa zer den definitzea estatuaren esku dago, Barne ministroaren eskutan, hain zuzen. Ordena publikoaren zaintza, aldiz, barne-ministroaren peko organo polizialaren eskumena da, «biolentzia legitimoaren monopolioaren jabe dena»^[6].

Legeak dioena bazterrean utziz eta ikuspuntu materialistatik analizatzen badugu nozio hori, ondorengo agertzen zaigu: ordena publikoa, kosmobisio burgesak zehazturiko ordena soziala da –proletariotzari antagonikoa– gaur egun ordena oligarkikoaren sinonimo bilakatu dena. Lehenago zehaztu dugu, estatuak zuela ordena publikoa zer zen definitzen, eta bere menpeko organoek zutela bermatzen. Are gorago, zehaztu dugu Estatuaren rola zein zen: gutxiengoaren klase errepresioa, bestearengan. Hau da, sozialdemokraten ustetan ez bezala, estatuak ez du helburutzat klaseen arteko antagonismoak leuntzea, nahiz eta kontradi-



zio hortatik eratortzen den. Horiek argiturik, laster ulertu daiteke ordena publikoa *statu quoaren* alde lerrokatzea dela, askatasun publikoen kalterako, eta *statu quoa*, ororen buru, klaseetan banaturiko gizarteetan, zapalkuntzaren betikotzea dela.

Interes orokorreaz mozorroturiko interes partikular horien izenean, gainera, oinarritzko eskubideak murriztu diezazkigute. Adierazpen askatasunaren kasua da, adibidez, delitu gisara kondenatua dena, ordena publikoaren oztopo bilakatzen denean. Ez da eskubide horren gehiegizko erabilpenik egin behar, Gizakien eta Herritarren Eskubideen Adierazpenaren 10 eta 11. artikuluetan jasoa den gisan. Pablo Hassel rap kantariaren gisako kasuek —nahiz eta espainiar legedia izan— erakutsi dute zuzenbi-

Horiek argiturik, laster ulertu daiteke *ordena publikoa statu quoaren* alde lerrokatzea dela, askatasun publikoen kalterako, eta *statu quoa*, ororen buru, klaseetan banaturiko gizarteetan, zapalkuntzaren betikotzea dela

dearen ikuspuntutik zein ziren ordena publikoari kalte egin diezaioketen adierazpenak, antolakuntza komunistarekin lerrokatzen direnak, hain zuzen. Hau da, argien filosofia liberalaren baitan giza eskubideena izan bada burgesiaren iraultza teoriko-ki zilegiztatu duena, behin boterea lorturik, burgesiaren dominazioa bera kolokan jartzeko modukoa zen. Beraz, burgesiak mugatu behar izan ditu, Makiaveloren irakaspenei segika: «ez gara boterera helden boterean mantentzea ahalbidetzen diguten bitarteko berdinekin».

Garrantzitsua iruditzen zitzaidan ondorengo legeak aztertu baino lehen salbuespen egoerez mintzatzea, salbuespen egoeretan gertatzen baitira egiturazko aldaketak, ondotik betikotzen direnak, erran gabeko oniritzi soziala lortuz. *Libertizidioak*^[7] diren aldaketa juridiko horiek oniritzi soziala nola lortzen duten sakontzea interesgarria litzateke, eramango gintuzke ziur aski askatasuna eta seguritatearen arteko dialektika aztertzeraz, beldurraren instrumentalizazioa eta ideologiaren parte diren komunikabideak tarteko, baina, ur handiegitan sartuko nintzateke.

Analiza ditzagun bada, *lege libertizida* bezala izendatuak izan diren hiru eraldaketa juridikoak, dinamika osoaren adierazle egokiak direlakoan:

1) FITXATEGIEI BURUZKO DEKRETUAK

Makartismoak, erreferentzia egiten dio 1950. urte hasieretan garatu zen AEBko politika antikomunistari. Denboraren poderioz, adiera zabalagoa barne biltzen joan den terminoa. Orain, seguritate nazionala dela medio, talde baten askatasun politi-



ko eta zibilen murrizketari deitzen zaio. Frantzia indarrean sartu diren 2020ko abenduko fitxategiak esanguratsuak dira, horren aldetik.

2008an DGSi (*Direction Générale de la Sécurité Intérieure*) eta DGPN (*Direction Générale de la Police Nationale*) organoak sortu ziren eta aparatu horiei beren funtzioak bete zitzaizten bi datu base eman zitzaizkien: CRISTINA eta EDVIGE. Bigarren honek polemika sortu zuen bere hedadura eta edukierengatik; izan ere, egindako balizko lege hausteengatik haratago, iritziarengatik fitxatua izatea ahalbidetzen zuelako. Frantziako Informatika eta Askatasunen Batzordeak berak (CNIL deritzona) praktika ilegal zenbait azpimarratu zituen, eta erantzun gisara 2020ko dekretuak onartu zituen gobernuak.

Dekretuek fitxategien helburua moldatu dute, datu masa handiagoa bildu ahal izateko eta pertsona kopuru handiagoari sarbidea ahalbidetzeko. Sinpleki, informazio batek balizko interes bat izanez gero, bildua izan daiteke: izan pertsonaren estatu zibilekoei buruzkoak, izan bizi ohiturak, jarrerak, aktibitate fisikoak...

Kezka gehien sortzen duen puntua ondorengoa da, ordea: orain, bil daitezke pertsona baten ideia sindikal, erlijioso, filosofiko ala politikoei buruzko datuak baita osasun egoerari buruzkoak ere. Az-

kenik, sare sozialetako jarduerari buruzko datuak aipatzen dira, sobera zehaztu gabe zeri egiten zaion erreferentzia. Oro har, segurtasun juridiko ezaz mintza gaitezke azken urteetako aldaketa juridikoez mintzatzerakoan.

CNILaren arabera, gainera, dekretu horiek, *avant la lettre* erabiliak ziren praktika batzuk legalizatzea besterik ez dute egiten. Dekretu horiek Estatu Kontseiluaren (frantziar estatuko epaitegi juridiko gorena) aitzinera eramanez izan ziren eta Estatu Kontseiluak ez zituen baztertu.

II) SEPARATISMOAREN KONTRAKO LEGEA

Separatismoaren kontrako lege gisa ezagutua den legea adoptatua izan da gobernuaren arabera islamismo erradikalari aurre egiteko. Anitz mintzatu da Frantzia azkenaldian «islamista-ezkertiarren» (*islamo-gauchiste*) mehatxuaz, proiektu separatistak dituen gizatalde abstraktu bat definitzeko. Zientifikotasun gutxi duen termino horren inguruan luzatzeak ez du balio.

Legeak aldaketa juridiko ugari barnebiltzen ditu, hemen baina, elkarrekin dagokiena aipatuko dugu bakarrik; izan ere, Errepublikaren printzipioekin le-rokatzen ez diren elkarten gaineko kontrol zorrotzago bat ahalbidetzen du, botereak antierrepublikartzat dituen elkarteak deuseztatu ahal izateraino.

III) SEGURTASUN OROKORRERAKO LEGEA

Segurtasun orokorraren nozioa Gerra Hotz ostekoa da, etsai komunista, estatutik kanpo zena, estatu barnekoa bilakatu zenekoa. Oro har, hitz horietan definitzen dute: «Estatu batek daukan gaitasuna segurtasun maximoa bermatzeko». Noren segurtasuna eta noren kontrakoa den, ongi badakigu.

Lege hau, arbitrariotasuna indartzen duten azken urteetako legeen antzera, gaizki idatzia eta zehazkabea da, biziki teknikoa izateaz gain. Helburua sinplea da, militantzia kriminalizatzea disuazioren bitartez. Errepresioaren paradigma aldatzen da, antizipazioan baitatza orain, intentzioa bera kriminala bilakatuz, materialki ezer egin behar izan gabe. Zuzenbide penalaren oinarritzko printzipioetatik bat da, ordean, jakitea zer eginez gero kondenatua izan zaitezkeen eta zer-nolako kondena ukan dezakezun. Trikimailu juridiko baten bitartez, manifestaria, gaizkile bilakatzen du legeak, eta terrorista, poliziaren kontra oldartzen dena.

Legearen hitzaurrea adieraz betea da, nozio berri bat erditzerakoan: «seguritate *continuuma*». Legearen izpiritua, motzean, segurtasuna bermatzeko burgesiak eskura duen agente potentzial oro mobilizatzea da. Ohizko agenteetatik at: udaltzaingoak eta segurtasun pribatuko agente eta operatzaileak aipatuak baitira.

Legearen lehen titularen baitako artikuluetan hain zuzen ere polizia munizipalaren eskumenak handituak dira, hala nola: infrakzio gehiagoren kontrolatzeko eskumena, fitxategi batzuetarako sarbidea, isunak ezartzeko eskumen handiagoa (drogak) edota palpazioak eta zaku miaketak elgarretaratzeetan. Finean, polizia munizipala, geroz eta gehiago, polizia judizialaren luzamendua bilakatzen ari da. Alta, polizia judizialak prerrogatiba juridiko gehiago ditu, konstituzioaren arabera oinarritzko eskubideei dagozkien zuzenbide penalaren eta epailearen menpe diharduelako; polizia munizipalaren kasuan, anbiguoagoa da, eta horretarako, Kontseilu Konstituzionalak zentsuratu du lehen artikulua. Izan ere, konstituzioko 66. artikulua dio askatasun indibidualen guardia autoritate judiziala dela eta ez beste nehor. Bestalde, kontseiluak atzera bota du 2. artikulua zaldun legislatiboa zelakoan erran nahi baitu, zerikusirik ez zuela legearen helburuekin (okupazioaren kasuan polizia munizipalaren eskumenari buruz).

Boterea geroz eta esku gutxiagotan kontzentratzen den horretan, botere honek geroz ta agente gehiago ditu bere zerbitzuko. Botere betearazlea ordezkatzan duten organoak lokalki, geroz eta indartsuagoak dira: prefeta, botere betearazlearen ordezkari lokala, da adibiderik argigarriena.

Lege hau, arbitrariotasuna indartzen duten azken urteetako legeen antzera, gaizki idatzia eta zehazkabea da, biziki teknikoa izateaz gain. Helburua sinplea da, militantzia kriminalizatzea disuazioren bitartez. Errepresioaren paradigma aldatzen da, antizipazioan baitatza orain, intentzioa bera kriminala bilakatuz, materialki ezer egin behar izan gabe



Legearen arazorik handiena hori da, zigorgabetasuna handitzen duela, errekurtsuak geroz eta korapilatsuagoak bilakatuz; nola zinpeko agenteekiko, hala agente pribatuekiko

Legearen bigarren tituluaren baitako artikulua biztanleriaren gaineko kontrol sozialean segurtasun pribatua integratzeari buruzkoak dira. Eskumen zabaldua eskainia zaie agente pribatuei, bote-re poliziala azpikontratatu izateraino (palpazioa, fitxategi batzuetarako sarbidea...). Auzi larria da, agente pribatuek agente ofizialek duten kontrol minimoaren gainetik ere jarduteko ahalmena baitute, eta haien leialtasuna diruarekiko soilik baita. Legearen arazorik handiena hori da, zigorgabetasuna handitzen duela, errekurtsuak geroz eta korapilatsuagoak bilakatuz; nola zinpeko agenteekiko, hala agente pribatuekiko.

Zigorgabetasuna inbokatu badugu, IGP (Inspection Générale de la Police) ala «poliziaren polizia» ezin da aipatu gabe utzi. IGPNa kontrolatu behar ditu poliziaren terreinuko deribak. Alabaina, autonomia maila baxuko barne zerbitzua da, etengabe hierarkiari azpiratua eta azken instantzian barne-ministroari, zeinak adierazi duen duela gutxi ez zuela onartzen biolentzia polizialaz mintzatzea Frantzian. Gaineratu egin zuen ere, polizia ez zela biztanleriaren zerbitzuko, baizik eta estatuaren mesedetan (ez ote da hau miliziaren definizioa?). Horrez gain, IGPNa poliziaren deontologia aplikarazi beharra du, baina, deontologiaren aldetik eman diren aldaketa batzuk ere ezin dira aipatu gabe utzi, nahiz eta ontologikoki ala esentzian, polizia -errepresio erakunde gisa- jadanik hala zen. Adiera nabarmeneko aldaketa semantikoak burutu dituzte, hala nola, askatasun indibidualen defendatzaile izatetik, agente polizialak legeen defendatzaile izatera pasa dira. Bakearen defendatzaile izatetik, ordenaren mantentzeko indarra izatera pasa dira. Eta azkenik, Errepublikaren defendatzaile izatetik, interes nazionalen defendatzaile izatera pasa dira.

Frantzian, «segurtasuna» ogibidetzat dutenak, gaur egun, 250.000 pertsona inguru dira. Polizia

munizipala (25.000) eta agente pribatuak (165.000) gehituz, orotara, 450.000 pertsona inguru daude kontrol sozialera dedikatuak. Ezin aipatu gabe utzi militarrek, espazio publikoetan geroz eta presenteago direnak.

Agente gehiago beraz, teknologia geroz eta puntakoen jabe, zer esanik ez. «Tekno-poliziaren» garaietarako salto ofiziala dugu lege hau, teknologia berrien erabilpen poliziala zilegiztatzeko duena, hirugarren tituluaren baitako artikuluen bitartez (soinu eta usain kaptoreak, kaptore termikoak, irudiak, ezagupen faziala...). Hobeki erranik, jadanik erabiliak ziren praktikak legeztatzen dituen neurria da. Teknikoki posible dena, zuzenbideak posible egitea xede duena.

47. artikuluan, adibidez, droneak hizpidera ekartzen dira, beren erabilpenaren hipotesiak zerrendatuz. Zerrenda lasaigarria izan beharrean, beldurgarria da. Dronearen erabilerak arazo bat dakar, jende multzo handi bat identifikatzeko daukan gaitasuna, alegia. Hau da, legedia europarrean, norbait identifikatzea posible bada, orduan «datu tratamendu» gisara kontsideratua da legearen arabera eta hala beharrez finalitate juridiko batez motibatua izan behar du. Estatu Kontseiluak (epaitegi juridiko gorenak) seinalatu zuen legearen urraketa hura, baina praktikak berdin-berdin segitzen du. Aldi honetan, Kontseilu Konstituzionalak du seinalatu, 47. artikulua zentsuratuz, bizi pribatuari egin urraketa handiegia zelakoan eta ordena publikoaren babesak ez zuela holakorik justifikatzen.

Agente pribatuak «seguritate *continuum*» horretan integratzeaz gain, operatzaile pribatuak ere integratuak dira, delegazioa eta informazio trukea indartuz (sare sozialetako datuak, banketxeak, garraioetakoak etab.). Esperimentalki indarrean sartu beharra zen 62. artikulua aipa dezagun: artikulua horrek zioen garraioetako kamera erabil zitekeela, helburu polizialetarako. Ideia sinple bati jarraikiz: kamera batek autobusaren bidai guziak grabatuko zituzkeen, eta irudiak poliziaren eskura emanen, arrisku larri bat izanez gero. Parisen, autobus bat 3 minutuero pasatzen da, pentsa datu masa. Are beldurgarriagoa industria 4.0ak ahalbidetuko duenean datu masa horren tratamendu adimentsua (5Ga, inteligentzia artifizialen optimizazioa...). Kontseilu Konstituzionalaren erabakiak artikulua hau kendu du.

Legearen ondorengo artikuluetan, klase dominanteari berebizikoa zaion organo polizialari -errepresio-erakunde gisa- eta polizia sindikatu indartsuei eginiko opariak dira. Tristeki famatu egin den 24. artikulua ohia tarteko. Azken honek kasu berezia





merezi du, *frantses mozala* deituriko honek hautsak harrotu baititu. 1881ko prentsa askatasunaren legea modifikatu nahi zuen, indar polizialen irudien gogo txarreko difusioa larriki zigortuz. Senatuak berridatzi du, delitu berri bat sortuz, bidenabar: «identifikaziorako delitua». Indar polizialaren integritate fisiko ala psikikoari kalte egiten bazion irudien elkarbanatzeak, eta intentzionalki egin bazen, zigorgarria zen. Kontseilu Konstituzionalak dionaz, legegileek ez dute behar zen bezala definitu gogo txarra eta artikulua zehaztasun ezaren aitzinean, artikulua zentsuratu dute. Ez da dudarik atetik kanporatu duten dispositibo hori, leihotik berri sarrarazten ahaleginduko dela legegilea.

Oihartzun handiko artikulua izan da prentsa askatasuna ukitzen zuen heinean, eta bide beretik, kazetariak ukitzen zituen heinean. Europako Komisioak berriz adierazi du, pluralismoa eta prentsa askatasuna demokraziaren zutabeen artean zirela. Kazetarien independentziaz anitz mintzo da bere burua progresistatzat duen komisia, baina, hitz gutxi egiten du kazetariak enplegatzen dituzten *mass media*-en independentzia ezaren inguruan, oligarkiaren jabetza pribatuak direnak. Errealiki, errangarria eta erranezina zehaztua izateaz gain, behar den bezala informatzeko eskubidea galarazten badigute oligarkiaren esku diren komunikabideek, zail egin dakiguke adierazpen askatasunaz mintzatzea kontsekuenteki.

Azkenik, legearen laugarren titutlue aipa dezakegu, agente polizialen segurtasun eta zigor penalei buruzkoak. Izan ere, poliziari eraso eginez gero kondena zorrotzagoa aurreikusten zuen testuak eta preso sozialek dituzten kartzelako abantailak kentzen zituen, zigor murrizketak bezalakoak, terroristei dagozkien presondegi baldintzak inposatuz. Konstituzio Kontseiluak zentsuratu du.

Konstituzio Kontseiluaren erabakia berri ona izan arren, ilusioetan ez gaitzala gal. Lehenik, gainean aipatu bezala, jadanik erabiliak ziren praktikak legeztatzea baizik ez zetorrelako legea eta bigarrenik, alde edo moldez heldu diren legeetan adoptarazten entseutuko diren kontra erreforma juridikoak baitira. Burgesiaren ezaxola geroz eta handiagoak oinarritzko eskubideekiko agerian uzten du hil ala biziko kontuak zaizkiola aldaketa juridiko horiek, etorkizun arriskutsu baten atarian hartzen diren horietakoak. Parisko prefetak manifestari bati bota egiak beti ber intentsitatearekin balio digu beraz: «ez gara ber bandokoak». /

OHARRAK

1. Antonio Gramsciren bereizketa da, hegemonia kulturala eta koertzio estatalaren artekoa (bere hitzetan: «*cuirassé de coercion*»).
2. Leninen estatu burgesaren ikuspegia marrazten da hemen, bere bi elementuetan: gutxiengoaren diktadura bortitza gehiengoarengan. Michel Clouscard-ek defendatzen duen tesiaren arabera, hastapenean nazio estatuak izan badira kapitalismoaren garapenerako marko egokiak, hertsiegiak zaizkio orain burgesiari. Beraz, Europar Batasunak gauzatzen duen balkanizazio prozesuaren aitzinean, dialektikoki nazio estatuak burgesiaren kontrako erresistentzia marko bilaka litezke.
3. Zuzenbide naturalaren teorian, gizakiak naturatik baditu eskubide eta askatasun inalienableak eta beraz estatu ororen helburua liteke eskubide horien bermatzea. Giza eskubideak zuzenean ikuspegi horretatik eratortzen dira, eta beraz formalki, berdintasuna *de iure* konsakratzen badu, inegalitate materiala de facto zilegitasunez konsakratzeko da (luzaz adibidez, «herriar aktiboa» zenak bozka zezakeen bakarrik, errola-sufragioaren mekanismoarekin).
4. Marxen analisia garatuagoa da noski, nahiz eta F. Mehring-ek idatzitako 1893. urteko gutun batean, Engelsek autokritika egiten duen erranez bi iraultzaileek garapen teorikoetan lehentasuna eman ziotelako edukiari, formari baino.
5. Lukacs-ek «proletariatoren kontzientzia eta reifikazioan» sakonduko du zuzenbidearen analisi «formala». Evgeny Pasukanis, lan horietarik abiatuko da *La théorie générale du droit et du marxisme* liburua idazteko.
5. Nicolas Sarkozy-k ere larrialdi egoera erabili zuen gerora 2005an auzoetako proletariatoren altxamenduen kontra.
6. Max Weber soziologo atzerakoiaren formula da, *Le savant et la politique* liburuan. Leninen kontzepzioaren arabera, proletariotzak biolentziaren antolakuntzaren gidaritza hartu beharra du. Hau egitean, gutxiengoaren diktadura izatetik, gehiengoaren diktadura izatera pasatzen da estatua eta bide berez, estatu burgesatik estatu proletariotzara. Zentzu horretatik eredugarriak dira Parisko Komunaren lehen dekretuak: Armada Permanentea disolbatzearena, langile klase armatuaren ordez eta poliziaren botere berrira sumetitzearena.
7. Segurtasun Orokorren Legearen kontrako mugimenduetan erabili izan den terminoa da, juridikoki baliorik gabea.

KOLABORAZIOA

Testua — **Jose Castillo**

Irudia — **Marc Asensio eta Zoe Martikorena**

PABLO HASEL ASKATU: ZIKLO POLITIKO BERRI BATEN LEHEN MOBILIZAZIOAK



Adierazpen askatasunaren mugei buruzko eztabaida sinple bat izatetik harago, Haselen askatasunaren aldeko protestek, Espainiako Estatu osoan egin ziren lehen protesta nabarmenak izan zirenez, joera politiko jakin batzuk erakusten dizkigute, pandemiaren osteko krisi kapitalistan sakonduko direnak. Era berean, protesta horiek erakusten digute estatu burgesa ez dagoela adierazpen askatasunaren mugak handitzeko prest; aitzitik, errepresio politikoaren sistematizazioa eta hedapena bizi ditugu.

COVID-19aren krisiaren testuinguruan Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) egindako kanpaina politiko adierazgarriak ohartarazi zuen «askatasunik eza pobrezia dela eta, pobrezia, askatasunik eza». Mezu horrekin, askatasun politiko-zibilak erabiltzeko eskubidearen eta gure bizitza erreproduzitzeko aukera material eta ekonomikoen artean dagoen harreman banaezina agerian gelditu zen. Askatasun politikoak murrizteak eskubide indibidual eta kolektibo txikiagoa ekartzeaz gain, pobrezia bera da pertsona ororen bizitza askatasunez garatzeko lehen galga material eta eraginkorra.

GKSren lelo hori abiapuntutzat hartuta, gaur egun etengabe zalantzan jartzen den adierazpen askatasunaren gaira egokitu, eta esan genezake «askatasunez adierazteko ezintasuna pobrezia dela eta, pobrezia, askatasunez adierazteko ezintasuna». Beste era batera esanda, adierazpen askatasunaren mugak ezartzen dituen botere posizioa da problematizatu eta argitu behar dena, horixe delako askatasun zibil eta politikoen mugak erabakitze botea duten subjektu horien aginte sozialaren boterea; lehenengo iraultza burgesen konkistak izan ziren horietako batzuk.

Erantzuna argia da, informazio-fluxu handiena kontrolatzen duten komunikabide-multzo handiek beren iritzia inolako oztoporik gabe askatasunez adierazteko eskubidea dute. Espainiako Estatuan ikusi ditugu azken hamarkadetan Ezker Abertzaleko politikariak barregarri uzten, hutsaltzen nahiz haien heriotzarekin amets egiten zuten egunkari eta tertulianoak, edo, oraintsuago, Pablo Iglesiasen irudiari egindako era guztietako hutsaltze eta eraso pertsonalak. Jokabide horiek ez dira politikari

Adierazpen askatasunaren mugak ezartzen dituen botere posizioa da problematizatu eta argitu behar dena

Haseli dagokionez, ez da bere abestietako hitzengatik edo bere aurrekari penal txikiengatik joan kartzelara; komunista izateak eta azken ondorioetaraino eramandako bere borondate politikoak eraman dute kartzelara

ezkertiar horiek Espainiako metaketa-erregimen kapitalistarentzat arriskutsuak direlako sortzen, baizik eta, gizarte-iruditerian, muga horietatik harago baimenduta ez dagoena markatzen duten erreferenteak direlako.

Era berean, Espainiako Estatuan artista disidenteak erbestera edo kartzelara eraman dituzten gorroto, irain edo kalumnia delituez hitz egin dezakegu; hala nola, Valtoney-en kasuaz edo Pablo Haselen duela gutxiko espetxeratzeaz. Haseli dagokionez, ez da bere abestietako hitzengatik edo bere aurrekari penal txikiengatik joan kartzelara; komunista izateak eta azken ondorioetaraino eramandako bere borondate politikoak, hau da, sistema kapitalista gainditzeko proiektuari kultur arloaren bidez babesa eman nahi izateak, eraman dute kartzelara. Era berean, adierazpen askatasunaren aurkako delituek 2008ko krisi kapitalistaren hasieratik gora egin izana ez da kasualitatea, ez eta, gehienetan, espektro politiko jakin baten aurka egin izana ere.

Hasieran genioen bezala, pobretze eta proletarizazio-garai masiboetan, hala nola, krisi kapitalistan, adierazpen askatasunaren mugak estuago bilakatzen dira. Ez da harritzekoa, metaketa kapitalista ahulenari eusten dion aparatuek politikoa orduan agertzen baita. Horrenbestez, Pablo Haselen

Pobretze eta proletarizazio- garai masiboetan, hala nola, krisi kapitalistan, adierazpen askatasunaren mugak estuago bilakatzen dira



espetxeratzea eta hori gertatu den unea ez dira kasualitatea. Era berean, espetxeratzeak eragindako protestek eta poliziaren erantzun errepresibo kalkulatuak etorkizunerako joera politikoak erakusten dituzte, eta militante politiko orok aztertu beharko lituzke.

HASEL ETA ZIKLO BATEN HASIERA

Haren intentsitateagatik, lurralde-hedapenagatik eta denboran zehar izan duen iraupenagatik, Pablo Haselen espetxeratzeak eragindako protesta mugimendua, konfinamendu osteko lehen mobilizazio politiko handia izan dela esan dezakegu. Are gehiago, esan daiteke Espainiako Estatuan ez dela hain mobilizazio bateratuez osatutako eta lurralde

**Haselen aldeko
protestetan, gazteenek
bizi duten belaunaldi eta
politika haustura agerian
gelditu zen**



hain desberdinetan lekututako ziklorik gertatu 15-M mugimendutik. Haselen aldeko protestetan, gazteenek bizi duten belaunaldi eta politika haustura agerian gelditu zen. Baina, osotasunean aztertu nahi badugu, beste ezer baino lehen, abstrakzio ariketa bat egin beharra daukagu, eta azken hamarkadetan Espainiako politikan izan diren ziklo politiko ezberdinak aztertu.

1. Ametsen hamarkada luzea (1990-2008):

Garai luze hori ulertzeko, metaketa multzo nagusian, hau da, Europar Batasunean, integratuta dagoen espainiar kapitalismo mota zehatza ulertu behar da. Europa mailako lanaren barne-banaketa horretan, Europa erdialdeko estatuen aurrean bigarren mailako lekua du Espainiako Estatuak; argi eta garbi, ekonomia inportatzailea da, eta balio erantsi txikiko zerbitzuen sektorekoa. 80ko hamarkadako desindustrializazioarekin, frankismo berantiarren garapenaldian eraiki zen klase ertaineko gizarte ahula desegin zitekeen.

Hala ere, Espainiako kapitalismoak hondamendi hori geldiarazi ahal izan zuen une batez, bi palanka artifizialen bidez: kreditua eta higiezinaren espekulazioa. Erregimen frankistak, bere azken garaian, langileen geruza zabalak kontsumo-gizartean sartzeko aukera ireki zuen, Espainiako Estatua higiezinaren jabeen gizarte bihurtzea helburu nagusitzat

hartuta. Hala, Espainiako kapitalismoa Europako Ekonomia Erkidegoarekin desindustrializatzen eta homologatzen hasi zenean, biztanleriaren zati handi batek etxebizitzaren bat zuen jabetzan. Soldatak devaluatzen hasi zirenean, familia asko hasi ziren higiezin bat edo batzuk jabetzan edukitzeak ematen zizkien errentetatik bizitzeko, higiezinaren merkatuko prezioek goranzko joera hartuta zuten ziklo batean: higiezinaren burbuila deitu zitzaion horri^[1].

90eko hamarkadaren amaieratik hasi eta mende berriaren lehen urteetan zehar, Espainiako klase ertainen existentzia jada ez zen oinarritzen lan-errenten bidezko ordainsari handi batean. Kontrara, bere posizioa kreditua eskuratzeko erraztasunean oinarritzen zen. Gauzak horrela, familiaren zorpetzeari eta familia proletario batentzat prezioek gora egin zutenean etxebizitza bat jabetzan edukitzeak eragiten zuen aparteko errentari dagokienez, guztiz artifiziala zen. Halaber, hazkunde eta metaketa kapitalistaren eredu horrek zenbatuta zituen egunak, eta 2008ko nazioarteko krisi kapitalistarekin lehertu zen.

Ikuspegi politiko batetik begiratuta, ametsen hamarkada hori da estatu mailan lozorro politiko handiena izan duena —euskal agertoki politikoa salbuetsita, hori oraindik ETaren jardueraren armatuari lotutako gatazketan eta Estatua autodeterminazio-erreferendum bat negoziatzera esertzeko borrokan

murgilduta baitago—; izan ere, Espainiako sindikatu nagusiek (CCOO eta UGT) 90eko hamarkadaren hasieran hainbat greba deitu bazituzten ere, patronalarekin negoziatzean eta adostean oinarritzen zen estrategia. Negoziazio horiek Espainia euroan sartu zedin ordurako abiatuta zeuden lan-erreformek sortutako efektuak arintzeko helburua zuten. Hori dela eta, lan-baldintzen devaluazioa proletargoaren bizi-baldintza errealean devaluazioaren aurretik hasi zen.

Garai hartan, —mobilizazio-ziklo handienak Euskal Herriaren kasua izan ezik, bere mobilizazio-ziklo propioa baitzuen— Irakeko gerraren eta M-11ko Madrilgo atentatu jihadistetan gertatutakoa argitzearen harira gertatu ziren. Gainerakoan, aldarrikapen sozial gehienak Zapateroren gobernuaren lehen agintaldian gizarte-mailako zenbait eskubide zibil hedatzeari buruzkoak izan ziren. Garai horretan ordenamendu juridikoan zenbait aldaketa egitea lortu zen, hala nola, ezkontza homosexualaren onarpena edo memoria historikoaren legea.

2. Kriaren hamarkada (2008-2019):

Amerikako Estatu Batuetako finantza-munduan eztanda egin zuen nazioarteko krisia, Espainiako Estatuan, higiezinaren burbuilaren eztandan islatu zen lehenengo, eta zorraren krisian ondoren. Higiezinaren burbuilaren kreditu zurrunbiloan parte hartu zuten finantza-erakundeak Estatuak erreskatatu

behar izan zituen.

Hor hasten da Espainiako klase ertainaren ametsaren amaiera. Nolabait ere, krisi horrek klase ertainetan hain ohikoa den aspirazio-joera apurtzen du, non klase horietako pertsonen seme-alabek gora egiteko aukera izaten duten formakuntza akademikoaz baliatuta. Hala ere, krisiaren lehen hamarkada honetan, klase ertain horien haustura politikoa oraindik ez zen espainiar kapitalismo moduarekiko erabateko haustura modura gertatu. Ezta gutxiago ere, ziklo horretako kontsigna politiko nagusia izan baitzen krisiaren aurreko garaira, aurreko ametsa, itzuli nahi izatea.

Grina horrek M-15eko protesta-zikloan hartu zuen forma, protesta horietan, nagusiki, orduko klase ertain horren ondorengoek hartu baitzuten parte, gora egitea ahalbidetuko zien igogailua parez pare itxi zietela ikusita. Alabaina, haien gurasoek edo gertuko beste senide eta lagun batzuek, gertutik ezagutzen zuten etxebizitza bat, auto bat eta etengabeko aisialdia erosteko aukera izan zuten mundua. Gizarteko geruza horrentzat, klase ertainen gainbehera erreferentzia kultural eta ideologikoa zen. 80ko hamarkadaren azken zatian eta 90eko lehen erdian jaiotako gazteak ziren, 2008ko krisi kapitalistak eztanda egin zuenean sartu zirenak lan-mundura.

Hori protestetan agerian gelditu zen, «benetako demokrazia partehartzaile batera» itzultzea eska-







tzen zuten bitartean, haien inkontzientean Ongizate Estatuaren garairik distiratsuena irudikatzen baitzuten. 2011n plazen okupazioarekin hasitako protesta-zikloa erradikalizatuz joan zen, eta zenbait bide interesgarri hartu zituen; horren adibide da Hipotekak Kaltetutakoen Plataformak babestutako etxebizitza-batzarrak sortzea; herritar proletarizatuenek jasaten zituzten etxegabetzeen aurrean, autodefentsarako mekanismo gisa erabiltzen ziren.

Hala ere, ziklo hori guztia bideratzea eta neutralizatzea oso erraza egin zitzaien erakundeei. Nahikoa izan zen alderdi politiko berri batek, Podemosek, proletarizazio bidean zen klase ertainen nahiak parlamentuan ordezkatzeko aukera eskaintzea, protesta-zikloaren intentsitateak behera egin zezan. Dena den, hemen sakondu ezin dugun analisi interesgarri bat eginez, Podemosek bultzatu zuen forma politiko nazional-populista bere muga propioa bere jaiotzari bide eman zion hipotesian topatu zuen: krisi kapitalistan eta bere testuinguruan jaio zen, eta krisiak berak erreforma ekonomiko sozial-demokraten mugak erakutsi zituen^[3].

Aipatzekoa da urte horietan Kataluniako prozesu independentista eta Ezker Abertzale berriaren instituzionalizazioaren zatirik handiena gertatu zirela, EH Bilduren eskutik. Horregatik, Euskal Herriko protesta zikloa Espainiako Estatuan baino askoz ere disruptiboagoa izan zen, ziklo baten amaieratik zetorrelako. Katalunian, bestalde, M-15a ez zen oharkabean pasatu, eta xehetasun gehiagotan sartu gabe, iraganeko ongizate-egoerara itzultzeko nahia Kataluniako Errepublikaren independentearen proiektuan islatu zela esan daiteke. Prozesu hori, ordea, une oro Kataluniako burgesia txikiko eta ertaineko ordezkari politikoek gidatzen zutela argi zegoen, eta, Espainiako Estatuarekiko haustura iritsi zenean, elite politikoaren esku utzi zuten.

3. Krisian sakontzea eta pandemia (2019-2021):

Egindako ibilbide historiko labur horrek egungo une politikora iristeko balio izan digu. Gaur egun, krisi kapitalista, aurrez ere susperraldi zantzuak eman ordezkantzen jarraitzeko zantzuak ematen zituena, areagotu eta sakondu egin da COVID-19aren pandemiaren eragina dela-eta. Aski dira pandemiaren azken urteko datu soil batzuk, bizi dugun debaluzazio sozialaz jabetzeko:

- Eurostatek 2020. urtearen amaieran emandako datuen arabera, Espainiako biztanleen % 20,7 pobrezia-arriskuan zegoen.

- Datuak nabarmen egiten du gora 25 urtetik beherako gazteei dagokienez, horietatik % 48 po-

brezia-arriskuan baitaude. Langabezia-tasa % 40an mantentzen da gazteei dagokienez.

- Eurostatek berak emandako datuen arabera, Euroguneko estatu guztien artean, Espainiakoan jaitsi zen gehien familien batez besteko errenta pandemiaren hasierako konfinamendu-aldian. Batez beste, % 14ko jaitsiera izan zen.

Datu horiek guztiek ondorio nabarmen bat uzten digute belaunaldi proletario berrien psike kolektiboan: 90eko hamarkadaren amaieran edo 2000ko hamarkadaren hasieran jaio ziren gazte gehienek krisi kapitalistaren sarraskiak baino ez dituzte ezagutu helduaroan eta politizazio garaian. Baina, are gehiago, ez dute aurreko belaunaldiak izan zuen erreferentzia argirik: klase ertaineko bizitza duina, enplegu egonkorrekin eta goiz emantzipatzeko aukerarekin.

Are gehiago, gazte horietako asko ez dira politizatu 2011n hasitako protesta-zikloan, oraindik haurrak baitziren. Eta egun dagokien politizazio garaian, krisiaren lehen aldi hartako protesta-olatuak sortu ziren alderdi sozialdemokratak ziklo amaierara iritsi dira, Podemosek hauteskundeetan izan duen higadurak eta Pablo Iglesias presidentearen dimisioak erakusten duten bezala. Gauza bera esan daiteke, hauteskundeetan zenbait joera desberdin izan ditzaketen arren, erakundeen estrategia politikoak agortzen ari direla erakusten duten beste proiektu batzuei buruz.

Testuinguru horri pandemiaren hasieran murriztutako eskubide zibil eta politikoaren galera gehitu behar zaio, ordutik, kontsumo araututik kanpo dagoen sozializazio oro kriminalizatua eta jazarria izan baita. Horrek itotze- eta depresio-egoera bat eragiten du gazte geruza proletarioengan, eta hori bat-bateko matxinada politiko moduan gorpuztu daiteke, aurreko mobilizazio-zikloan baino intentsitate handiagoko matxinadetan. Horrela gertatu zen Pablo Haselen espetxeratzearen kontrako protestetan. Bere inguru politikoak atxiloteta ikusgarri bat prestatu zuen, unibertsitatean itxialdi bat eginez, Estatuak bere aurpegiak errepresiboena erakutsi zezan eta protesten intentsitatea handiagoa izan zedin. Eta horrela izan zen, protestek txinpartaren bat behar zuten eta hori Hasel izan zen, baina lurra lehenagotik ondua zegoen.

Are gehiago, Haselen aldeko protestetan, hurrengo mobilizazio-zikloan ohikoa izan daitekeena ikusi ahal izan zen: gizarteko geruza proletarioenen eta gaur egun deskonposizioan dauden klase ertainen oinordekoen hainbat segmenturen presentziaren konbinazioa, bat etorrita. Gainera, nabarmentze-

**90eko hamarkadaren amaieran edo
2000ko hamarkadaren hasieran
jaio ziren gazte gehienek krisi
kapitalistaren sarraskiak baino ez
dituzte ezagutu helduaroan eta
politizazio garaian**



**Protestek txinpartaren
bat behar zuten eta hori
Hasel izan zen, baina
lurra lehenagotik ondua
zegoen**



koa da bertaratutako gehienen batez besteko adina txikia dela, eta haietako askok ez dutela militantzia politikorik. Haselena lehen kasua baino ez da, eta esku artean lehergailu bat daukagu: hamarkada oso bat proletarizazio-prozesu etengabeak eta bizi-baldintzen debaluazioak ezaugarritu izana. Lehergailu hori hurrena lehertuko duen txinparta zein izango den jakitea baino ez da falta.

AUKERA POLITIKOAK ETA ERREPRESIOA

Testuinguru honetan, oso bide interesgarria ireki zaie agintean dauden eta krisiaren hasierako ziklo politikoa hegemonizatu zuten erakunde sozialdemokrata eta populistetatik urrun dauden antolakunde politikoei, haien hazkundea kuantitatibo eta kualitatiborako. Baina, hori diogun aldi berean, proletalgoaren kontzientzia kolektiboak eskuineranzko joera hartzeko aukera berriak daudela ohartarazi beharra daukagu, eta, bereziki, gazte proletalgoaren espektro zabalak jasan lezake hori.

Nuria Alabao analista politikoak gazte proletarioen egungo baldintza materialei buruzko artikulua batean aipatzen duen bezala^[4], gaur egun langileen klase-baldintzak askoz ere gehiago zehazten ditu jabetzak —aktibo finantzario eta higiezinak, familia-ondare oinordegarria— soldatapeko enplegu gehienetan lortzen diren soldatek baino. Horrek esan nahi du, Alabaoren arabera, familia, ondarea pilatu eta transmititzen duen erakundea den alde-

tik, askoz garrantzitsuagoa bihurtu dela, baita langile gazteen posizio soziala, bizitzeko moduak eta bizi-aukerak zehazterakoan ere.

Testuinguru honetan, non baden hamarkada bat baino gehiago lan-indarraren prezioa bere erreprodukzio-prezioaren azpitik ordaintzen dela, gizarte-ongizatea, hein handi batean, gurasoek daukatenaren eta euren seme-alabei emateko prest daudenaren arabera da, bai eta horretarako unearen arabera ere. Hori dela eta, familiaren menpekotasunera itzultzeak gazteen autonomia aukerak baztertzen ditu, eta, autonomiarik gabe, zaila da haien gaztaroan zirkulu militanteetan sartzea. Horiek dira nolabaiteko kontserbadurismora itzultzeko baldintza materialak.

Ziklo politiko berri honetan, gazte proletarioen geruzen politizazioa oztopatu dezakeen beste efektu bat errepresioaren sistematizazioa da. Hemen asko dugu ikasteko Pablo Haselen espetxeratzearen kontrako protestetan baliatutako taktiken inguruan. Horietan, poliziak taktikak erabili zituen etorkizunean protestak bertan behera geratu zitezen, errepresioaren beldurragatik. Adibide gisa, Bartzelonan eta Katalunia osoan izandako lehen istiluaren ostean, Espainiako Poliziak jendea erabat kikiltzeko taktika bat erabili zuen Madrilgo Puerta del Solen egin zuten protestan.

Esan bezala, istilu horietan *Kettling* edo kapsulatze metodo ezaguna erabili zuten. Plana argia zen:



Estatu burgesak blindatzeari ekin dio dagoeneko; izan ere, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak gehitu egin dituzte polizia-indarrak handitzeko eta hobetzeko aurrekontu-partidak

Puerta del Soleko sarbide guztiak ixtea eta giroa berotzen hasia, poliziek manifestaritzat jo zitzaizkeen pertsona guztiei miaketa umiliagarriak eginez. Ondoren, manifestariak mobilizazioaren lekuan itxi zituzten eta inpunitate osoz oldartu ziren haien aurka, ez baitzuten ihes egiteko lekurik. Diziplinazko jipoia izan zen zentzu guztietan, etorkizuneko mobilizazioak geldiaraztea helburutzat hartuta^[5]. Hurrengo protestetan, gutxiago izan ziren arren, polizia-indarren mobilizazio ikusgarriak ikusi genituen. 500 pertsonako manifestazio baterako 1.000 polizia pilatzerara iritsi ziren.

Horri Bartzelonan era indiskriminatu batean egindako kargak gehitu zitzaizkion, eta jakin badakigu han gazte batek begia galdu zuela mossoek *foam* jaurtigaiak erabiltzeagatik. Bestalde, sarekadak eta atxiloteta prebentiboak izan ziren Iruñean eta Bartzelonan bertan, non mossoek ustezko erakunde anarkista bat desegin zuten, ondoren, auzialdi judizialean, ezerezean geratzeko. Laburbilduz, amorru handia pilatuta duen gazte proletario asko dago, baina orokorrean ez dute eskarmentu militanterik, ez eta protestak antolatuko dituen proiektu politiko argirik ere; beraz, oso erraza da hori poliziaren errepresioaren bidez uxatzea.

ONDORIO POLITIKOAK

Espainiako Estatuko espektro sozialdemokrata populistarentzat, Pablo Haselen aldeko protestak gorroto delituei dagokien zigor kodea aldatuta konpon zitezkeen; nolabait, adierazpen askatasunaren legezko mugak malgututa. Hala ere, Haselen aldeko protestak hasi zirenetik hilabete batzuk igaro direnean, badakigu hori amu bat besterik ez zela izan, kontrolatzen ez zituzten eta ulertu ere egin ezin zituzten protestak ahultzen saiatzeko. Izan ere, ordu tik, Unidas Podemosek, Espainiako koalizio gobernu kide subsidiario izanik, ez du zigor kodearen erreforma hori berriro aipatu.

Eta ez du aipatuko; izan ere, *Mozal Legea* beza-



Bere burua «gobernu aurrerakoiena» bezala aurkezten duenak ez du inolako urratsik egin Mozal Legea ezabatzeko, eta Podemosek ere ez du honezkero ia aipatzen

la, Estatuak bere tresna errepresibo guztiak behar-ko ditu etorkizun hurbilerako. Nazioarteko Diru Funtza argia izan da^[6], protesta olatu bat dator, eta matxinada forma izan dezake edo espontanea izan daiteke; inork espero ez duenean egiten dute eztanda protestek, eta edozein gertakarik piztu dezake metxa. Horren aurrean, estatu burgesak blindatzeari ekin dio dagoeneko; izan ere, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak gehitu egin dituzte polizia-indarrak handitzeko eta hobetzeko aurrekontu-partidak.

Beraz, proletalgo gaztearen zein helduaren geruza zabalak politizatzeko aukerak daude. Hala ere, aurretiazko esperientzia politiko militanterik gabeko populazio-geruzak izanik, estatu burgesak badaki errepresioaren erabilera kalkulatu eta askatasun politikoak murriztuta eragin dezakeen disuasio-efektua zenbaterainokoa den. Horregatik, bere burua «gobernu aurrerakoiena» bezala aurkezten duenak ez du inolako urratsik egin *Mozal Legea* ezabatzeko, eta Podemosek ere ez du honezkero ia aipatzen.

Baldintza objektibo azkartuen anabasa horretan, antolakunde komunistek beren autodefentsa- eta politizazio-loturak zabaldu behar dituzte. Babes-eremu gisa jardun behar dute haien sumindura eta amorrua politikoki artikulatu daitekeen pertsonentzat; bat-batekotasun antzutik urrun, antolakuntzaren potentziak epe laburrera eta luzera garaipen politikoak lortzeko aukerak areagotzen dituela erakutsi. Mobilizazio politikoko ziklo berri bat dago potentzian, baina ezin da jakin gertatuko den ala ez. Hala ere, aukera bat jokoan dago jada. /

OHARRAK

1. EBri homologatutako Espainiako kapitalismoaren eraikuntza ulertzeko Emmanuel Rodriguezen saiakera irakurtzea gomendatzen da (2015): *Por qué fracasó la democracia en España. La Transición y el Régimen del 78*, Madril, Traficantes de Sueños.
2. UGT eta CC00 sindikatu handiek jarraitutako estrategian sakontzeko, Germán Setién Escamendiren artikulua irakurtzea gomendatzen da (2021): *Mutación del corporativismo y surgimiento de narrativas populistas. Estudio comparado de los procesos de protesta en Portugal y España en los inicios de la 'Gran Recesión'*, *Política y Sociedad*, 58(1), orr. 1-16.
3. Merezi du Yanis Varoufakis Greziako Finantza ministro ohiaren memoriak (2017) modu kritikoa irakurtzea, krisi kapitalistaren testuinguruan politika ekonomiko sozialdemokrataren mugak ulertzeko: *Comportarse como adultos: Mi batalla contra el establishment europeo*, Bartzelona, Deusto Ediciones.
4. Nuria Alabaoren artikulua (2021): *Financiarización, mercado de la vivienda y el retorno a la familia*, CTXT, maiatzak 3.
5. Horri dagokionez, gomendatzen da Davis Pique Escuadrako Mossoen komisario izan zenekoaren Master Amaierako Lana irakurtzea, *Síndrome de Sherwood* izenekoa, non ikuspegi polizialetik kaleko protestak geldiarazteko eta erreprimitzeko hainbat taktika aztertzen diren.
6. Nazioarteko Diru Funtzaren txosten zabalago baten laburpena, COVID-19aren pandemiaren ondorengo protesta-uholdeari buruzkoa: *La larga sombra de la COVID-19: Repercusiones sociales de las pandemias*.

OSOTASUNAREN HERESIA

Zenbait ohar «emakumearen auziari» buruzko teoria dualek gaur egun feminismo antikapitalistan eta «queer marxismoetan» duten garrantziaren inguruan



Testua
Isabel Benítez

Irudia
Zoe Martikorena

Emakumeak nazioarteko proletarizazio-prozesuetara era masiboan txertatu izanak eta kutsu feministako masa-fronte baten berrakibatzeak –nagusiki Europan eta Amerikan– emantzipaziorako tresnak suspertzeko beharra piztu du. Bestela esanda, «emakumearen auzia» militantzia komunista garaikidearen *logelako elefante* bihurtu da: hura klase borrokarekin nola artikulatu, borroka ideologikoa nola zabaltu, zein diren eginbehar estrategikoak eta antolakuntza-tresnak kapitalismoaren aurkako borrokan... Edo, laburrago esanda, nola zertu, sexu- eta genero-berdintasunari dagokionez, langile klasearen independentzia politikoa?

ZENTZU KOMUNETIK EMANTZIPATZEA

Lehenengo oztopoa litzateke nola emantzipatu (edo blindatu) gaitezkeen «mugimendu feministan» haragitu asmo duen «zentzu komunaren» kortse horretatik, zeinarekin antolakunde antikapitalista eta erreformista ugari fusionatu diren. Ia baldintzarik gabeko errendizioa da, nahiz eta «zentzu komun» horrek ez dion eragiten uzten klasearen ikuspegi totalizatzaileari. Era beran, zentzu komun hori immunea da nazioarteko langile klaseko askotariko segmentuen arteko desberdinkerien aurrean, baita hark mundu mailako kapitalismoarekin duen loturarekiko «nola?» eta «zergatik?» galderen azalpen ulergarri eta konkretuen aurrean ere. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula; izan ere, «mugimendu sozialista beti saiatu izan da, maiz lortu ez badu ere, bere posizioa feminismo burgesaren eskubide-ber-



dintasunarekiko bereizten»^[1].

Lise Voglek, Marxen lanean harat-honat dabilelarik, helduleku bat ematen digu. Honela definitzen du (ekoizpen sozialaren) «osotasun» kapitalistari aurre egitea: «ekoizpen sozialaren alorrean klase borroka bilakaera sozial ororen erdiguneko dinamika delako posizio teorikotik abiatzen da. Ikuspegi horretan oinarrituta, *ekoizpen sozial* kontzeptuak ekoizpenaren baldintza sozialen erreprodukzio-prozesu osoari egiten dio erreferentzia, eta bertan sartuko lirake truke- eta kontsumo-prozesuak, baita berehalako ekoizpeneko prozesuak ere». Eta honela jarraitzen du: «Ekoizpen sozialetik kanpora dagoen jarduerak halaberharrez ditu ondorioak inplikaturako agenteengan. [...] Eman zaigun formazio sozial kapitalista batean, norbanakoak ekoizpen sozialetik erabat edo partzialki baztertuta daude, prozesu horietan [ordaindu gabeko etxeko lanetako prozesu materialak] parte hartzen dute eta leku zehatza hartzen dute lanaren banaketa sozialean, eta horrek eragin politiko, ideologiko eta psikolo-

giko konketuak ditu». Voglek bigarren olatu feministako estertoreetan etxeko lanen eztabaidan egindako hitz-hartze horretatik, agian, lan honetan lagun diezaguketen zenbait kontu atera ditzakegu.

Hasteko, dio langile klaseko emakumeen zapalkuntza *ezin zaiola asimilatu* kapitalismo aurreko ekoizpen-moduetako klase azpiratuetako emakumeen zapalkuntzari. Ekoizpen-harreman sozial kapitalistek *alterazio kualitatibo eta bereizgarria* dakarkie Kapitalaren balorizazioaren indar eragileak mugiarazten dituen bizitza sozialaren alderdi guztiei. Alterazio horretan, subordinazio sozialaren sintomak –indarkeria matxista, diru-sarreretan edo denboran dauden desberdinkeriak, lan-banaketa sexuala, erreprodukzio- eta sexu-eskubideen ukatzea, gutxiespen soziala...–, nahiz eta itxuraz beste momentu historiko batzuetakoen antza izan, *ez dira baliokideak*. Adibide bat jartzearen, egungo jendarte kapitalistak patriarkarrak direla esatea gas bidezko sukaldeak Erdi Aroko sukaldeekin alderatzea bezalakoa litzateke, biek sua dutela argudiatu-





Emakume komunistok «osotasuna» ikusten dugun leku horretan, «zentzu komun feministak» «lan-indarraren erreprodukzioa» «zati bati» asimilatzen dio, hain justu, *etxeko eremuan egiten diren ordainsaririk gabeko lan konkretuei*. Eta horrela, lan horiek osotasun kapitalistarekin dituzten harreman zehatzen ikusmena lausotzen dute

ta. Vogekek langile klaseko emakumeen zapalkuntza beste modu batera pentsatzera behartzen gaitu, eta horretarako «patriarkatu»^[2] nozioarekin lotuta dauden apriorismo transhistoriko eta unibertsalak gainditzera.

Bigarren, nahiz eta soldatapekoa ez den etxeko lanak jartzen dituen adibide gisa, langile klaseko emakumeen menpeko-kondizioa *nazioarteko proletalgoko beste segmentu batzuenarekin* lotuta ere badagoela azpimarratzen du, eta horiek «ekoizpen sozialetik erabat edo partzialki baztertuta» daudela dio. Bestela esanda, sexu-kondizioa –eta, horrenbestez, hari lotutako sexuen arteko bereizketa– ez da ekoizpen sozialaren bazterrean dagoen zentrifugazioaren faktore esplikatibo *nahikoa eta beharrezkoa*, eta beraz, erreprodukzioaren desberdintasun biologikoak, amatasunaren efektu psikosexualak edota «gizonek emakumearen gaitasun erreproduktiboaren ondorioz haren sexualitatea kontrolatzeko duten beharra» ez lirateke haren jatorria eta ez dute emakumeen mendekotasun soziala azaltzeko gaitasunik, feminista erradikalek eta «feminismo sozialistaren» barruan sortu ziren emakume langilearen teorien hainbat modalitatek defendatzen zuten eran. Beraz, langile klaseko emakumeek, beste alde batetik, klase borroka langile mugimendutik ere integratu zuten, argi dagoenez.

XX. mendean zehar, jendarte kapitalistetan, emakumeen zapalkuntzaren inguruko zehaztasun teorikoak enfatikoki «etxeko lanetan» zentratu ziren, eta XXI. mendean, «zaintza-lan»^[3] edo «erreprodukzio sozial» terminoetan birplanteatu da. Vögelen ustean, ordea, «funtsezko gaia lan-indarraren erreprodukzio-prozesua da, *osotasunean* begiratu-ta». Garrantzitsua da «osotasun» hori azpimarraztea, kontuan izanda ez dela arraroa ikuspegi sozialistek nahiz osotasuna helburu duten ikuspegiak –esaterako, erreprodukzio sozialaren teorian– sarri labain egitea eta definizio trakets edo inplizituak

egitea, kalkulaturako anbiguotasunak, zelai feministaren barneko indar-korrelazio ideologikoari erantzuten diotenak (kontziente izanda ala ez), edo zuzenean oportunistak direnak. Emakume komunistok «osotasuna» ikusten dugun leku horretan, «zentzu komun feministak» «lan-indarraren erreprodukzioa» «zati bati» asimilatzen dio, hain justu, *etxeko eremuan egiten diren ordainsaririk gabeko lan konkretuei*. Eta horrela, lan horiek osotasun kapitalistarekin dituzten harreman zehatzen ikusmena lausotzen dute (eta bide batez, hark ekoizpen sozialean duen papera ikusezin bilakatzen).

Vogekek, hain justu, «ekoizpen sozialaren» ikuspegia kontrajartzen dio, abiapuntutzat kapitalismoaren dinamika hartu beharrean, «familia» hartzen duen hurbilpen alternatiboari (hortik dator arreta ordainsaririk gabeko etxeko lanei ematearena), maiz Engelsen *Jabetza pribatuaren, familiaren eta Estatuaren*^[4] sorrera lanaren sarrerako formula ezagunean oinarrituta. Esaten duenez, emakumeen zapalkuntzaren jatorria familian zegoela zioten horiek neurrigabe erabiltzen zituzten bikote kontzeptual batzuk (ezagunak egingo zaizkizue): «produkzioa/erreprodukzioa; eremu publikoa/eremu pribatua; lan sozial produktiboa/etxeko lan pribatua; klase sistema/familia sistema; klase dominatzailearen dominazioa/gizonen pribilegioa; teoria marxista/patriarkatuaren teoria». Teorizazio alternatibo hori ez da familian, etxean, egiten diren lanen kutxa beltz bat irekitzeko espezializazio tematikoa (behar-beharrezkoa, inondik ere) bakarrik; horretaz gain, sarriegi dator historiaren filosofia baten eskutik, gehiago edo gutxiago, esplizitua dena. Filosofia horren arabera, «historiaren bi motor» daude: klaseen arteko borroka eta sexuen arteko borroka, eta hortik dator patriarkatu kapitalista edo kapitalismo patriarkarra bikote kontzeptuala, bai eta hortik eratorriak ere; hala nola, «soldataren patriarkatua».









Sexu- eta genero-berdintasunaren alorrean ez dugu politika edota programa iraultzailerik zabaltzerik *lanaren banaketa sexuala, familia nuklearra eta heteronormatibitatea* hartuta emanak zaizkigun eta klase borrokarekiko alborakuntza-harremana duten abiapuntuko premisatzat

«FEMINISMO SOZIALISTAREN» EDO «KLASE FEMINISMOAREN» KONTRAESANAK

Vogelek «feminismo sozialista» izendatzen duenak –edo, azken urteetan Espainiako Estatuaren testuinguruan «klase feminismo» gisa izendatu izan denak– seinalatzen duena zera da: «sozialistek emakumearen zapalkuntzarekin amaitzeko zerbait egiteko duten konpromisoa». Eta geure testuinguruan, batzuetan, «zentzu komun feminista» faltsu horretan elkarrekiko posizio kontrajarrietan dauden eta zapalkuntza «patriarkar» unibertsal eta transhistorikoaren izenean faltsuki ezeztatu izan diren klase interesen talka antzemateko behar teoriko eta politikoaren zantzuak ematen ditu. Hala eta guztiz ere, nahiz eta zehaztasunaren lehenengo urrats horretan –«emakume» kategoriaren ilusioarekin amaitzea, eta horretarako desberdintasun eta interes politiko antagonikoak «emakume» horien klase posizioaren arabera bereiztea– aurrerapausoa den % 99ren hiritarkeriazko likidazionismoaren aldean, ez da, bere horretan, interklasismoarekiko eta erreformismoarekiko independentzia ideologikorako berme nahikoa. Ez da nahikoa, behintzat, aldarrikapen horiek «lan-indarraren erreprodukzioa *bere osotasunean*» aztertzen duten analisisien eskutik ez badoaz, eta hori egin ezean, borroka horrek XIX^[5]. mendez geroztik Europako sozialdemokrazia ezaugarritu duen dualismo teorikoak eta erreformismo politikoak bahituta egoten jarraituko du. «Langile klaseko emakumeez» hizketan aritzeagatik eta haiei zuzentzeagatik ere nekez puskatuko du erreformismoaren sabaia, konpromisoazko formula hori edukiz bete ezean. Edo, bestela esanda, lan politiko hori, emakumeen zapalkuntza *era konkretuan* kapitalismoaren dinamikarekin lotzeko gaitasunik

ez duenez, bere praktika politikoan emakumeen —langileak, kasurik onenean— aurkako zapalkuntza *ikuspegi deskriptibo, azaleko eta abstraktutik* egiten da, eta fronte espezializatu bilakatzen da, zeinaren garrantzia kapitalismoaren aurkako borrokan termino boluntaristetara mugatzen baita, sarri ideologia kapitalista hegemonikoaren mailegu akritikoz beteta daudenak («ez dago iraultzarik emakumerik gabe», «iraultza feminista izango da, edo ez da izango»)[6]. Azalkeria abstraktu horren eraginez, asmo iraultzaileak dituzten antolakundeak zaurgarri bihurtzen dira berdintasunaren aldeko borrokan ikuspegi partzialekin edo dualekin batera datozen amarruen aurrean: inpresionismo historikoa (lanaldi osoan aritzen den etxekoandre unibertsala), arrazakeria («beltza» erasotzailatzat hartzen duen karikatura hipersexualizatua), erlatibismoa (*hijabaz* estaltzea ahalduzaren sinbolo gisa)...[7]

Kasurik okerreanean, langile klaseko emakumeen zapalkuntzaren hurbilketa ez da *osotasunaren* ikuspegi batetik egiten, ez bada klase kondizioa *beste bektore intersektional bat* balitz bezala gehitzen duen karikatura ekonomizista gisa, emakume langilea «subjektu korporatibo» erantsi gisa hartuta. Gabezia teorikoek edo zainketa kritikoki ezak «emakumearen auziaren» praxi politiko iraultzailea mutilatzen dute, eta hura mekanismo organizatibo, formal, barne-mailako, eta, finean, epe laburreko apustu taktikoetara mugatzen dute (arriskuan jartzen dira eredu liberal, formal eta atomizatuaren arabera eraturako borroka «subjektuak» akritikoki inportatzen direnean). Bitartean, feminismo hegemonikoaren agendaren leloa, dudarik ez dezagun egin hor, subjektu kolektibo historiko batek gidatzen du: nazioarteko klase kapitalistak.

Orain artekoak laburbiltzeko, Vogekek ikuspegi «heretiko» bat garatzen du zentzu komun feminista eta gaur egungo ezker antikapitalistaren zati handi baten inertzia politikoa azaltzeko: sexu- eta genero-berdintasunaren alorrean, ez dugu politika edota programa iraultzailerik zabalzerik *lanaren banaketa sexuala, familia nuklearra eta heteronormatibitatea* hartuta emanak zaizkigun eta klase borrokarekiko alborakuntza-harremana duten abiapuntuko premisatzat.[8]

Ekonomia politikoari Marxek egiten dion kritikak akademian jasan duen baztertzeak nahiz historiaren azterketak eta ezagutzak hamarkada luzez jasan duten gutxiespenak, —besteak beste—, hau da, borroka ideologikoaren atzerakadak, izaera «teorikoa» duen espezializazio politikoa sustatu du berdintasunaren alorrean, eta horrek teoria dual «espontaneoan» lur-eremua zelaitu du eta

emakumearen (eta generoaren) auziaren inguruko erantzun teoriko eta estrategikoak eman ditu, zeinak bazter uzten baitute *kapitalismo internazionalaren dinamika* ezagutzea. «Kentze» horrek, Iris M. Youngek[9] teoria dualen ahultasun zantzu gisa ulertu zuenak, ez zuen *osatu* nahi zuten marxismo hori *gaindituko* zuen esplotazio kapitalistaren teoriarik sortu; horra hor «klase feminismoen» Aki-lesen orpoa.


HURBILPEN BAT PROPOSAMEN

«MARXISTA TRANSEI»

Alabaina, teoria dualen itzala (*intersektionalitatearen* arabera deklinatuak izan edo ez) luzea da eta, marxismo estrukturalistaren hondarretatik, badirudi publiko berri bat topatu duela beren burua «marxismo queer» edo marxismo trans modura izendatzen duten horiekin. Bereziki oparoak izan dira eremu anglosaxoian eta nekez hasiak dira indarra hartzen geure testuinguruan, Espainiako Estatu-ko *Trans Legea* bor-borka dagoen honetan. «Erreproduktzio sozialaren teorian» ibilbidean kokatzen dute euren burua, eta beren argudiaketetan ez da ezohikoa Lise Vogelen «emakumearen auziaren» inguruko berrirakurketan ainguratzea.

Militantzia «marxista queer»[10] hori transaktibismo liberalarengandik eta feminismo erradikalarengandik aldentzen da, baita hark korporatibismoa tronuratzeko duen borroka agonikotik ere; «trans auziari» heltzean klase ikuspegiak duen garrantzia azpimarratzen du, eta haren desira emantzipatzailea proiektu sozialistaren baitan ulertzen du. Era berean, argi eta garbi jartzen du zalantzan ortzi-muga antidiskriminatzaile formalista (miseria kapitalista, sexista, arrazista... *intersektionalaren* beren puskak lortzeko korporatibismoen arteko lehia).

Egiaz, transexualitatea kontuan hartzeak —edo ta beste edozein aniztasunen adierazpenak kontuan hartzeak— ez dakar inolako arazo teorikorik «*geure etsai historikoaren aurkako borrokan* —indibidualtasun eta talde-identitate askotarikoak kontuan hartuta— subjektu gisa eratzen den» subjektu kolektiboaren nozioari dagokionez, Nestor Kohanen hitzetan. Halaber, jendarte kapitalistetan transak baztertzen dituzten oztupo formalak ezabatzeak ere ez luke arazo izan beharko: «Erregimen politikoa zenbat eta demokratikoagoa izan, orduan eta argiagoa da langileentzat gaizkiaren erroa kapitalismoa dela, eta ez eskubide falta», esango luke Leninek. Horri gehituko diogu politika iraultzaileak ezin lezakeela *transfobia*[11] izan, baldin eta ez badie bere printzipioei traizio egingo (xenofobo edo supremazista izan ezin duen bezalaxe).



**Ez da nahikoa, behintzat,
aldarrikapen horiek «lan-indarraren
erreprodukzioa *bere osotasunean*»
aztertzen duten analisisen eskutik
ez badoaz, eta hori egin ezean,
borroka horrek XIX. mendeaz
geroztik Europako sozialdemokrazia
ezaugarritu duen dualismo teorikoak
eta erreformismo politikoak
bahituta egoten jarraituko du**





Azkenerako utzita «sexuaren desnaturalizazio» problematikoa, postulatu horien hipotesi teoriko eta politikoa —sofistikazio eta eklektizismo nabarmenarekin— Voglek ulerkera engelsiar ezagunean arakatu dituen akats dualista berberetan (testuaren hasieran aipatu dugu) oinarritzen da: abiapuntuko premisa gisa zapalkuntza-logika bikoitza (klase eta sexu zapalkuntza) hartzea, eta hura «familia nuklearraren», hots, «erreproduktzio sozialaren» «funtsezko zelularen» egoitza nagusitzat jotzea. Familia nuklear horren funtzioa, hertsiki ulertuta, lan-indarraren —«behar» sistemikoa— hornikuntza litzateke, zeinaren bitartez kapitalismoak «familia» ezartzen eta babesten baitu, horrek bermatuko baitu «ekoizpen-modua determinatuko duten *egituren* erreproduktzioa» (nabarmenak geuk eginak dira). Kategoria marxianoak gehiegi eta modu lausoan, formula dispartsoetan, erabiltzeaz harago, karitate hermeneutikoaren printzipioa aplikatuta, proposamen horietan *bere garaian teoria dualistek egin zituzten ia pauso berberen* berredizio mimetikoa aurki dezakegu, «bi esferen» teorien berredizioa barne, baita, ahal balitz, «fabrika sozialeko» feministen *funtzionalismo demografikoaren* zuhurtzia gutxiagoko bertsio bat ere.

Berrikuntza dakarren ekarpena, zehazki, «sexuaren desnaturalizazioa» litzateke. Hori generoaren ikasketa kulturalen lanen mailegu esplizitu bat da (baita Louis Althusserrek Ideologiaren inguruan dituen formulen birjabetze partikularra ere, subjektua interpelatzen denean, *hura eratzen duelako*), eta bereziki, Judith Butlerrena; horrekin, deseraikitze linguistikoa giza espeziearen dimorfismo sexuala zailtzean jartzerainoko muturreraino daramate, eta, horren bidez, mahai gainean jartzen dute emakumearen mugimendu emantzipatzaileak «hierarkia sexual», «sexismo» edo «genero rol» gisa deskribatu dituenak «bizi garen mundu hau eratzen duten sexu eta genero harreman antagonikoen desberdintasun sexualak» besterik ez direla (horien historia, esaten digutenez, «kontratuaren historia bat da»), beren argumentu-garapen politikoan *ekoizpen* harreman sozial kapitalistekin parekatzen direnak^[12].

Premiazkoa da azpimarratzea formulazio horrek programa bat zehazteko edo esku-hartze iraultzaile bat egiteko bidean bi arrisku dakartzala. Lehenengoa, planteamendu horretatik eratortzen den ulerkera dualistak «familia kapitalista» (sic) auresuposatzen duela (gehiago zehaztu gabe klasea edo arraza, *besterik gabe*) kapitalismoaren erreproduktzio sozialerako espazio gisa, eta hari jarraikiz, «familia kapitalista» «gainditzeko» kapitalismoa gainditu behar dela dioela, une batzuetan alderan-

tziz dela dirudien arren: «*queer* eta trans langileen emantzipaziorako baldintza materialak emanda dagoz (ekoizpen sozialaren alde egiten du)^[13] baina ez dira gauzatu, oinordetzan jaso dituzten eta *Kapitala gailentzen den* instituzio sozial zaharrekin kontraesanak dituztelako [familiarri dagokionez]».

Arantzatsua da —posizio materialista batetik gutxienez— *funtzio adierabakartzat* kapitalismoaren zerbitzura dauden «erreproduktzio biologikoa eta erreproduktzio soziala» dituen instituzio gisa ulertzea «familia», eta aldi berean, ulertzea «'sexu naturala' generoaren bidez ekoizten eta ezartzen» dela, «generoa talde sozial batek erreproduktzio biologikorako duen gaitasuna *auresuposatzen* duen mekanismo bat» dela, eta jarraian, pentsatzea «'genero erregimenen' naturalizazioa dimorfismo sexuala (erre)produzitzen duten naturalizazio burgesak» direla. Hala ere, are arantzatsuagoa da giza espeziea *sexuatua* izatea dominazio-harreman klasisten naturalizazioarekin parekatzea, edo dimorfismo sexuala ezaugarri zorrozki kapitalista dela sinestea (!).

Bigarrenik, formulazio horien boluntarismo iraultzailea, beste behin, kapitalismoaren dinamika-ren analisi konkretuaren gutxiespenean datza, baita familiaren fetitxizazio ahistorikoan ere. Familia kapitalismoak birformulatutako instituzioa da, baina tentsio kontraesankorren pean dago (eta ez aldebakartasunez Kapitalari *funtzional* zaizkionak), Kapitalaren erreproduktzio hedatua eta *langile klasearen erreproduktzio hedatua* bereizten baditugu. Halaxe dio Lebowitzek *Beyond Capital* (*Kapitalaz harago*) liburuan, hain justu, erredukzionismo *ekonomizistei* edota obreristei itzuri egiteko helburuz (testuak horien kontra agertzen du bere burua). Tentsio eta kontraesan horietan, esplotazio erreproduktiborako mekanismo espezifikak ageri dira; horiek ez zaizkio aplikagarri *erreproduktzio biologikorako gaitasun bat auresuposatzen zaion talde sozialari* —formula parafraseatuta—, ezpada nazioarteko proletalgoaren emakume konkretu eta hezur-haragizkoei; duten gaitasun erreproduktiboa beren esplotaziorako *baldintza* da, ez da «aukera» hutsa. Eta *erreproduktzio biologikoaren esplotazio* hori politika izarra da transaktibismo liberalean «familia-instituzioa» betikotzeko, umetokien alokairuaz (*edo haurdunaldi subrogatua*)^[14] familia bera «deseraikitzearen» bidez. Auzi horrek beste hierarkia bat sortzen du nazioarteko proletalgoaren barruan (erreproduktzio biologikoaren merkantilizazioa), eta hori, geure ustez, gaur egungo *distopia konkretuaren* termino utopiko eta desproblematizatzaileetan mahaigaineratzen da. Are larriagoa dena eta trans auziari zehaztasun jakinez erreparatzen diona zera da:







esplotazio sexualak ez eragitea «sexu naturaleko» emakumeei bakarrik, baizik eta baita trans emakumeei ere, Kay Gabrielelek aipatutako behin-behineko agendako lehen puntuari jarraikiz.

Amaitzeko, Vogelen heresia gogora ekartzen badugu –ez dugu politika edo programa iraultzailerik hedatzerik sexu- eta genero-berdintasunaren alorrean *lanaren banaketa sexuala*, *familia nuklearra* eta *heteronormatibitatea* hartuta emanda datozkigun premisa gisa eta alborakuntza-harremanean daudenak klase borrokarekin, baldin eta ez badugu taktizismoan edo erreformismoan erori nahi–, hau da, gaur-gaurkoz, trans auziari dagokionez, ez dirudi erantzun asebetegarririk topa dezakegunik transaktibismo liberala vs feminismo erradikalaren^[15] koreografiatik landa, eta oraingoz behintzat, ezta «marxismo transaren» saiakeretan ere.

Beste behin formula marxianoa Hegelen ahotara ekarrita: «ekoizpen sozialaren alorrean klase borroka da eboluzio sozial ororen dinamika zentrala». Zentzu horretan, gaur egungo lege-esparru burgesean (eta formulatu daitekeen beste edozein proposamen korporatibo lehiakorretan) *Trans Legearen* proposamenak eragiten dituen kontraesanetatik harago, lerro politiko iraultzaile bat planteatu beharko litzateke, osotasun kapitalistaren ikuspegiarekin, aztertzeko *chauvinismo sexual* edo *queerretik* eratorritako erreformen bat epe ertain edo luzera aurrerapen edo oztopoa litzatekeen klase kontzientzia handitzeko eta kapitalismoaren kontraesanak argitzeko, edo zer baldintza bete beharko liratekeen ez jarraitzeko elikatzen korporatibismo lehiakorra, izen okerrez «subjektu feministaren eztabaida» deitzen zaion hori. Eta horrek, ezbairik gabe, azterketa konkretu eta xehea merezi du, sozialdemokrazia garaikidearen irenste boluntaristaz eta trilerismo parlamentarioaz haraindi. /

OHARRAK

1. «*Questions on the Woman Question*» Monthly Review, 31. liburukia, 2. zk. (1979ko ekaina). Mireia Bofillen gaztelaniazko itzulpenetik *Arteka*-k ale honetarako euskaratua.
2. *Nahiz* eta terminoa orokortua dagoen eta jendarte kapitalista garaikideetako dinamika sexistak eta matxistak ezaugarritzeko erabiltzen den, «patriarkatu» terminoaren zorrotzasunik gabeko erabilera honetaz dagoeneko ohartarazi gintuen Gerda Lernerrek «Patriarkatuaren sorrera» (*The Creation of Patriarchy*) lanean.

3. Ordainsaririk gabeko etxeko lanetan arreta jartzeak langile klaseko emakumeentzat «lana» zergatik den garrantzitsua argudiatzeko beharra eta guzti sortu du. Ikus Susan Ferguson.

4. «Teoria materialistari jarraikiz, historiaren faktore erabakigarria, finean, bizitza inmediatekoen ekoizpena eta erreproduktzio dira. Baina produktzio eta erreproduktzio horiek bi motatakoak dira. Batetik, bizi-bitartekoaren ekoizpena dago, eta hor daude elikagaiak, arropa, etxebizitza eta hori guztia produzitzeko behar diren tresnak; beste aldetik, gizakiaren produktzioa bera dago, hau da, espeziearen iraupena» (*Artekak* ale honetarako berariaz egindako itzulpena).

5. Ikus Vogel, Lise ([1983] 2013) *Marxism and the oppression of women. Toward a Unitary Theory*. Chicago: Haymarket Books

6. Gaur egun, garrantzitsua da sufragismoaren aurkako geure tradizio politikoaren memoria historikoa berreskuratzea, eta kanon feministetatik eta emakumeen emantzipazioa gizateriaren emantzipazioaren aldeko borrokatik zentsuratzearan tematzen diren beste antologia batzuen atzagarretatik askatzea, eta horretarako, errebisionismo historikoa eraistea. Horren adibide arketipikoa da Ana Miguelen hitz hartze hau. Frencia eta Gaidoren lanak kontrapuntu proposa dira.

7. Akaso zabalduea nazioarteko organismoen datuen errepikapen mimetiko hutsa da, marko teorikorik gabekoa eta osatzen dituen ikuspegi politikoaren digestio analitikorik gabekoa, zeinak, gauza batzuk azalarazten dituen bezala (familien barnean dagoen erantzunkidetasun desparekidea, adibidez), beste gauza batzuk ezkutatzen baititu (lan-erreformek estrategia *erreproduktiboetan* duten eragina edo ordaindu gabeko ordu gehigarrien inflazioa, adibidez).

8. Ez da harritzekoa antologietatik zentsuratu izana eta haren testuen itzulpenak militanteek egin behar izana, eta ez argitaletxeek, burbuila literario feminista gorabehera.

9. Young, Iris M. (1980) *Socialist feminism and the Limits of the Dual system theory* a Hennessy, R. & Ingraham, C. (eds) (1997), *Materialist feminism. A reader in class, difference and women's lives*. London: Routledge.

10. Artikulu hau hartu dugu esposizio honen oinarritzat, literatura marxista queerrean ematen dituen erreferentzia ugariek eta heldulekuek korrante horren ertzak ziriborratzen laguntzen dutelakoan: Hybris, I. (2021) a *Transformar-ho tot: notes degenerades per a l'abolició del gènere. Catarsi Magazin*. Aipu guztiak artikulu horretatik hartuak dira.

11. Esan beharrekoa da, alabaina, terminoaren neurrigabeko erabilerak ia ukapenaren kulturaren (hau da, eztabaida politikoaren bahiketaren kultura) nolabaiteko sorginkeriarekin parekatu duela.

12. Proposamen honen eta feminismo materialista frantsesaren paralelismo guztiz oharkabeak aipamen berezia merezi du.

13. Azpimarratzekoa da nola Engelsen formulazioen segidismoek teoriaren eta praktika politikoaren funsgabetasuna ere arakutzen duten. Bestela esanda, nahiz eta «Jabetza pribatuaren, familiararen eta Estatuaren jatorria lanaren esposizioan» ez zaion ezein funts teorikorik ematen *emakumeen* emantzipazioaren artikulazio politikoan ekoizpen soziala gakoa denik, formula zuzena izaten jarraitzen du (baina teorikoki itsua). Gauza bera gertatzen da oraingo honetan, nahiz eta baliabideak eta helburuak nahasten diren: Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren politikak Clara Zetkinen babespean emakume langileek lerro iraultzaileetan *iraultza* egiteko zuten klase kontzientzia eta partaidetza politikoa areagotzeko tresna gisa jasotzen zuen horrek zentzua galtzen du, eta helburu bihurtzen da bere horretan.

14. Alokairu-sabelen gaiari dagokionez feminismoaren barnean dabiltzan joera berriei buruz irakurtzeko lan kritiko bat hau da: Floyd, Kevin. 2015. «Automatic Subjects: Gendered Labour and Abstract Life». *Historical Materialism* 21(2):61–86.

15. Garrantzitsua da galdetzea ea feminismo erradikalak *transaktibismo liberalari* erreferentzia egiteko «kategoria imaginarioak» erabiltzearen zentzugabekeriaz eskuak burura daramatzanean bere zapataren hormarekin ari ote den borrokan. Pentsatu beharrekoa da transaktibismo liberalak emakume deitzen dienean «hala sentitzen diren guztiei» aparte utzita giza espeziea ezaugarritzen duen (eta haren jarraikortasun fisikoa ahalbidetzen duen) dimorfismo sexuala, ez ote den egiten ari feminismo erradikalak egiten duen gauza bera, hots, giza eme guztiak «emakume gisa» interpelatzea borroka bakarra egin dezaten, aparte utzita duten klase-posizioaren arabera beren bizitza eratzen duten esperientzia desberdin eta kualitatiboa. Hori dela eta, feminismo erradikalak «emakumeak ezabatzearen» inguruan agertzen duen tremendismoa langile-klaseko transexualen marjinalitate sozialari erantzuna emateko dekretuz identitate sozial bat ezartzeko nahia bezain histrionikoa da. *Rafdem* ahizpatasun unibertsalak dagoeneko ezabatu eta ukatu ditu langile-klaseko emakumeak emantzipatzeko aukera guztiak argi eta garbi uko egin dienean klase-borroka inoren alde jokatzeari. Bestalde, sexu- eta genero-disidentzia desklasatuak kapitalaren termino hegemonikoetan adierazten dira, eta kapitalismo garaikideak emakumeen eta haur proletarioen gorputza merkantilizatuz eta nazioarteko langile-klasearen esplotazioa erreproduzituz agintzen dituen ogi-apur formalak besarkatzen dituzte, *desira* horren analisirik egin gabe.

Argitaraturik
2021EKO EKAINEN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
SS-01360-2019

Lizentzia





arteka